

BETERRIKO ALDIZKARIA

AIURRI

1995ko urtarrila. 9. zenbakia. Doan banatzen da.

BILLABONA



XX. mendean zehar



MLARAVENDI



MLARAVENDI

MANUEL LARRAMENDI

Kultur Bazkuna

*ZU BAZKIDE
EGIN ZAI
GAUDE*

Euskaltzaleon elkartea.

ADUNA, ANDOAIN, ASTEASU,
BILLABONA, LARRAUL, ZIZURKIL

Egoitza orokorra: Dr. Huizi kalea, 15-1, ANDOAIN ☎ 30 07 33

2. **INKESTA:** Eta zuk, zer diozu 2.000. urteari buruz?
4. **BERRIAK LABUR**
7. **ZIKULU SALTSA:** Zein baino zein merkeago!
10. **HERRIZ HERRI**
19. **ERREPORTAIA:** Billabona XX. mendea: Eraldaketa baten irudiak.
22. **ELKARRIZKETA:** Billabona: Drogomenpekotasunen gaiak bildu zituen.
24. **BASERRIAN:** Emakumea baserrian.
26. **KULTURA:** Andoaingo zeramika tailerra.
28. **KIROLA:** Akonkaguan zehar.
30. **ZAHARRAK BERRI:** Asteasu: Santa Ageda, usadioa baino gehiago.
31. **ENPRESA:** Marie Brizardek iaz bete zuen mende laurdena Zizurkilen.
32. **BEGI ARGIA:** *Xofor Oria:* "Zer esan dena hankaz gora dagoenean".
33. **HEMEROTEKA**
34. **HOTS, HOTS!! SUKALDE TXOKOAN**
35. **MERKATU TXIKIA**
36. **ZURE HIZPIDEA**
37. **AIURRITARRAK:** Familia Plangintza Naturala *Ana Rosa Munilla.*
39. **AGENDA**
40. **PASADIZUAK**



OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia. **Erredakzio Batzordea:** Eloi Egibar, Jone Larrañaga, Mikel Maiz, Jon Unanue. **Erredakzioa:** Maider Barandiaran, Txomin Etxeberria, Agosti Garmendia, Ainhoa Oiartzabal. **Laguntzaileak:** Joxe Eizmendi. **Argazkiak:** Manu Mujika. **Komikia:** Beñat Azurmendi. **Publizitate arduraduna:** Aitziber Iraola. **Banaketa arduraduna:** Iñosken Mujika. **Administratzaile-eragilea:** Kepa Sarasola. **Inprimategia:** SORTU s. coop. **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 ISSN: 1134-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

Eta zuk, zer diozu

Aro Kristauaren bigarren milurteak bete ditu 995 urte dagoeneko, bost baino ez dira hirugarrenera iristeko geratzen. Halako data seinala-tuek beti eragin ohi dituzte kezka bereziak, aparteko beldurrak eta era guztietako iragarpenak. Hain zuzen ere, oraingo honetan gure bizilagunei munduaren martxari buruzko iragarpena egitea eskatu diegu: munduak onera ala txarrera egingo ote duen galdetu diegu. Guztiei egin zaie zail samarra galderari

erantzutea. Batzuei egun bateko epea ere eman behar izan diegu galderak tajuzko erantzuna merezi zuelakoan. Hala bada, gutxienez, galdetutakoen izaera bakoirra eta ezkorra ikusi ahal izan dugu kasu askotan. Baikorra edo ezkorra izateak errealitatearekin inongo harremanik bate duen galdetuko dio batek baino gehiago bere buruari. Izan ere jakina da errealitatea zuria edo beltza baino, norbere ikuspegi eta desioen kolorekoa izan ohi dela.



2

Gurutze Galdos. Aduna. Ingurugiro teknikaria.


Ingurugiroari begira gauzak aldatzen hasiak dira: jendeak kontzientzia handiagoa dauka eta Administrazioa ere lehen baino gehiago egiten ari da. Orain dela bost urte baino pixka bat hobeto gaude, eta hemendik aurrera aldaketak handiagoak izatea espero dut. Adunan bertan ingurugiro teknikarien lana ongi baloratua izan da eta dauzkagun arazoek hobera egingo dute. Neri eta nere lanari dagokionez, egoera ekonomikoa ona ez dela esan behar da. Lanpostu bat aurkitzea eta mantentzea zaila da. Eta ez dut uste bost urte barru gauzak asko aldatuko direnik. Nere lana ingurugiroarekin erlazionatuta egoten jarraitzea nahiko nuke.

Jose Luis Elizegi. Asteasu. Harakina.

Neri munduak onera egingo duela iruditzen zait, noski. Hala ere, beste aldeko gauzak ere asko entzuten dira: mundua asko ari dela poblatzen, gerra nuklear bat sortzen ari direla, eta horrelako gauzak. Beldurra badago 2.000. urterako. Dena den, bizi kalitatea hobetu egingo dela iruditzen zait. Baina, beste aldera ere, nahikoa arrisku badagocela ikusten dut. Ni, ziurra da, bost urte barru zahartuagoa egongo naizela, sasoirik hobereana pasata. 2.000. urterako osasuna baino ez nuke nahi. Osasuna edukiz gero, gainerakoa etorriko da. Asteasuk oraingo martxan jarraitzen badu, nahikoa txikituko da. Aurrera egiten badu, herri polita izan daiteke: industria ere herritik nahiko urrun dago eta. Baina momentuz jendea alde egiten ari da, etxebizitzak ez daude asko, eta komunikazioak ere ez dira beste herri batzuetakoak bezain onak.


Octavio Cánora. Andoian. Koadernatzailea.

Nahi izan, gauza asko nahi ditut, edo desio ditut, neretzat eta mundu osoarentzat orokorrean. Azken urteetako gertaera guztiak ari dira seinalatzen aro berri baten ateetan gaudela. Kristautasunak 2.000 urte bete ditu. Erljio honez gain, badaude bera bezain antzinakoak diren beste batzuk eta baita herriak ere. Batek daki ez ote gauden ordenu sozial berri baten aurrean! Andoaini dagokionez, eta egoera ekonomikoaz hitz eginez, lanik ez badago, jendeak kanpora joaten jarraitu beharko du, nahiz eta inork ez nahi izan. Nik bost urte barru jubilatuta egotea espero dut, eta seguritate sozialak neri pentsio on bat ordaintzeko adina diru izatea espero dut.




Koldo Etxabe. Billabona. Kultur Etxeko arduraduna.

Milurte bukaera honetan utopia humanisten akabatzeaz hitz egiten denean, interkomunikazio orokorrerantz omen doa mundua mendealdeko zientzia eta teknikari esker. Oso adierazgarriak interkomunikazio horren oinarriak: indibidualkeria latzena, gosea, gerrateak, sarraskiak, arrazismoa eta mixeria etikoaren areagotzea; Ia-ia erabat desegin arte natura birrintzea; Hilketak, korrupzioa, bakardadea eta estresaren ugaltzea; Kultura merkatu soila bihurtzea eta abar. Telebista kateen zabaltzeak dakar duintasunaren esperantza, bai horixe!



Mikel Sesma. Zizurkil. Jubilatua.

Txarrera ere joan daiteke mundua, baina nik uste dut onera egingo duela, gauzak erreztu egingo dituzte eta. Lantegiek beste era batera egingo dute lana. Lana ere gutxigo egingo da, ordu gutxiago, beste era batean egingo da lan, eta hori abantaila handia izango da. Ni baikorra naiz. Hori bai, gizakiok munduak okerrera egiteko makina bat pozoin asmatu ohi ditugu, geure artean. Zizurkil asko aurreratu da, eta aurrera egingo du, ez atzera. Nik teiltatu zaharra daukat ia eta ittute asko honez gero. Osasuna edukitzea baino ez dut eskatzen, gainontzeko erretorika hori guztia ondoren etorri ohi da.



Juanjo Olazabal. Zizurkil. Langilea.

Orokorrean, onera egin beharko du, txarrera egiten badu, istilu latzak izango ditugu. Beharko orduan onerako! Langabeziari dagokionez, joerak aldatu egingo dira: gero eta autonomo gehiago daude, izan ere lan egiteko baldintzak lurperatzen ari dira. Lana izango da, baina zein baldintzetan, auskalo! Jendea natura mailan kontzientziazten ari da, baina oraindik aldaketa izugarria eman beharra dago. Natura bera une honetan gu zigorren ari da, gure portaeraren ondorioz. Zizurkil goialdea ez dut uste asko aldatuko denik. Aldatu beharrekoa ia aldatuta dago. Neure bizimoduari dagokionez, onera espero dut egitea. Aurrera egiteko moralak daukat, behintzat.



**Dietetika
eta Belardenda**


ZAINBERRI

Naturopataren kontsulta
Iridologia
Masajea
Estetika

Akupuntura
Ile tratametuak
Pisu terapiak

Pablo Gorosabel, 6 - ☎ 65 21 86
Kale Nagusia, 7 - ☎ 59 13 99

**TOLOSA
ANDOAIN**



MAPFRE

ASEGURUAK

**ERANTZUN ORAIN
ZURE ETORKIZUNARI**

Xabin Mujika Tolaretxipi

Kale Berria, 11 - ☎ 30 06 99
Dr. Huizi kalea, 4 - ☎ 59 23 07
Faxa 30-00-85
ANDOAIN

Aiztondo bailara nola ezagutu

"Aiztondon barrena" izeneko liburuaren aurkezpena egin dute Asteasun. Bertan izan ziren egitasmoan parte hartu duten bost Udaletako alkateak eta liburuaren egileak. Berrez, hiru liburu eman dituzte argitaratzen: euskaraz, gazteleraz eta ingelesez. Izan ere liburuak bertako nahiz kanpokoei dago zuzenduta.

"Landalur eta baserriaren inguruko kultura mantentzea eta jendea kontzientziatzea izan da gure helburuetako bat" adierazi zuen Imanol Goikoetxeak aurkezpen egunean. Ondare etnografiko, kultural eta hizkuntz materiala bildu dute Imanol Goikoetxea eta Mikel Elorza liburuaren egileek. Horrez gain bisitariei herrian bertan aisialdia betetzeko zenbait aukera emanez herriko ekonomiari, nekazaritza turismoari berreziki, argitalpen berriak mesede egingo diola uste dute.

Hiriburutik hain gertu egonda Gipuzkoan hobekien zainduta dagoen txoko ezezaguna dela azpimarratu dute egileek. Liburuak besteak beste, hamazazpi ibilbide bildu ditu.



beraien barrena Aiztondo bailara ezagutzeko aukera emanez. Ibilbideei dagokienez euren iraupena, zailtasuna eta bestelako informazio zehatz-mehatza ematen du liburuak argazki eta grafikoz lagunduta. Horrez gain bidean aurki daitezkeen ondasun kultural-historiko-arkitektonikoei buruzko aipamena ere egiten du.

Ruandaren aldeko espedizioa

Ruandaren alde elur-leraz eta txakurrez tira egindako espedizioa hilaren zortzian iritsi zen Beterrira. Eguerdian Andoainen egon ondoren Zizurkilera jo zuen espedizioak. Pare bat orduz egon ziren espedizioako kideak Goiko Plazan diru bilketa egiteko jarri zituzten mahaitan.

Abenduaren 11an eman zioten hasiera espedizioari Bergaran ibilaldiko bost partaideek. 1.000 kilometro

egin eta Euskal Herri osoa zeharkatu dute honez gero trineotan. Euren asmoa argia izan da: Ruandaren alde dirua biltzea.



ZABOR BILKETA BEREIZTUA

Gaur egun gure herrietan beira, papera eta kartoia edo pilak zaborrontzi berezietara bota eta birziklatzeko aukera badago: Adunan paper edukinontzi bat dago, 30 Andoainen, 3 Asteasun, 1 Larraulen, 11 Billabonan eta 6 Zizurkilen. Beira botatzeko berriz, ontzi bat dago Adunan, 19 Andoainen, 2 Asteasun, 1 Larraulen, 4 Zizurkilen eta 7 Billabonan. Eskualdeko Tolosaldea Garatzen erakundea da ekimen honen jarraipenaz aurrerantzean arduratuko dena. Zaborrontziak jarri ondoren, hala ere, ingurugiro teknikariek egokitzat jo dute bilketa egiteko zenbait arau ezagutzera ematea. Hori dela eta, zaborrontzien erabilera zehazten duten gutunak igorri zaizkie herritarrei.

Edukinontzi berdeei dagokienez, hau da beira botatzeko ezarri direnetan edozein koloretako botilak bota daitezke, baina tapoirik gabe, baita beirazko kontserba poteak ere, eta kolonia eta kosmetikako beirazko ontziak. Edukinontzi urdinei dagokienez, hau da papera eta kartoia jostzeko jarri dituztenetan honako hauek bota daitezke: egunkariak, aldizkariak, publizitate liburuskak, katalogoak, eskutitzak eta abar, baina beti ere plastikozko zorroetan sartu gabe.

Botoi erako pilei dagokienez, gaur egun udaletxeetan, zenbait eskoletan eta pilak eros daitezkeen dendatan bakarrik daude ontziak.

Dendetako paper eta kartoiak berriz, ezin dira kaleetako zaborrontzietan bota, zaborra jasotzen den egunetan dendako ate ondora ateraz jasoko dituzte utzitako paper eta kartoiak. Lantegietako kartoiak dagokienez berriz, oraindik ez da bilketa berezirik egingo.

AIURRI

BETERRIKO ALDIZKARIA

MUSUTRUK

DEBALDE

hutsean

dohainik

urririk

Ez zaizula AIURRI etxera iristen?
Tabernara edo dendara joan eta AIURRI bukatu
egin dela?

EGIN ZAITEZ HARPIDE

Eskualdetik kanpo bizi bazara eta AIURRI aldizkaria jaso nahi baduzu,
500 pezetaren truke, urte betez jasoko duzu aldizkaria.

Bidal iguzu izen-emateko txartela edo dei ezazu **30 07 32** telefono zenbakira

AIURRI ALDIZKARIA ETXEAN JASO NAHI DUT HILERO DOHAINIK

Izen-deiturak

Helbidea

Herria

Zein baino zein merkeago!

Nola daiteke prezioak horrenbeste merketzea? Aurkitzen al dira benetako mahukak merkealdietan? Merkatariak asko irabazten al du?

Hilaren zazpian eman zitzairen era ofizialean merkealdiei hasiera. Egun batzuk lehenago ekin zioten komunikabide guztiek denda handietako merkealdiei buruz hitz egiteari, zein baino zein hobeak zirela iragarritz, kontsumitzaileari halako mahuka esku artean izan eta erosi gabe gelditu ezin zuela sinestaraziz. Bestalde, zenbait denda handitan merkealdi garaiaren hasieran izan ohi diren jende uholde izugarriaren irudiak ikusi ahal izan ditugu telebistan. Era berean, gure herrietako denda txikiak ere, honez gero, bere erakusleihoe-tan jarri dituzte merkaldiak edo deskontuak iragartzen dituzten txartelak, eta asko izango ziren dagoeneko erostera, ikustera, edo saltseatze-ra behizat, dendaren batera sartu direnak. Urtarrilean beste edozein eratako albistek bezain oihartzun handia izan dute merkealdiek komunikabideetan. Eta **AIURRIK** ere jakin nahi izan du zergatik egiten diren merkealdiak, ze helbururakin, dendariak etekinik ateratzen al duen eta kontsumitzaileak benetako mahukarik aurkitzen ote duen. Hau guztia dendari eta kontsumitzaileen hitzetatik jaso dugu zuzen-zuzenean.

Lehenengo eta behin merkealdiak, hondar-salmenta edo saldoak eta likidazioak edota biltegi-hustuketak ezberdintzea interesgarria iruditu zaigu. Merkealdiak urtaroak aklatzen direnean egin ohi dira, alegia denda denboraldi jakin bateko arropaz hustu eta denboraldi berrikoak ekarri behar dituenen. Dena den, merkealdietan jartzen diren erosgaiak ezin dute akatsik izan eta derrigorrezkoa da, merkealdietako prezioarekin batera aurreko prezioa ere ikusteko moduan adierazita egotea. Saldoak oso bestelako gauza dira: akatsak dauzkaten gaiak edota erabiltzen ez direnak jarri daitezke bakarrik saldoetan salgai. Biltegi hustuketak herriz, denda itxi edota hondamenen bat izan denean bakarrik egiten dira.

Zalantzarik gabe, arropa eta oinetako dendetako merkealdiei egiten zaie normalean harrerarik hobere-na, beste edozein gaitan baino, urtaro aldaketak agintzen duelako, eta baita modak ere. Urtean bi aldiz jarri ohi dituzte dendek merkealdiak, Gabonak inguruan eta uda hasieran. Aipatzekoa da aurten dendek merkealdiak aurreratu behar izan dituztela, aurtengo hotz-be-roak udazkenean ez baitie merkatariak garaiko arropa saltzeko aukerarik eman. Merkatariak aldiko bi hilabete-ko merkealdiak egin ditzake, alegia urte osoan lau hilabetez izango ditu bere gaiak merkealditan. Herri bateko denda guztiek ez dute zertan ados jarri beharrik



Lehenago eta oraingo prezioak argi agertu behar dute

denek prezioak aldi berean merketzeko, baina normalean gremiokoak ados jarri ohi dira, guztiei ere elkarrekin egitea komeni baitzaie. Kasu honetan denda txikiak baino, handiak agindu ohi du, eta merkatari batek dienez hiriburuetako dendek seinlatu ohi dute merkealdien hasiera data, eta herrietako dendek haiei jarraitu ohi diete. Jaitsieraren portzentaie dagokienez, denda bakoitzak nahi duen eran joka dezake, hala ere, kasu honetan ere jakina da kompetentziak agindu ohi duela.

Merkealdien arrazoia

Merkealdiak egitearen arrazoia eta helburua oso xe-hea da: dendariak denboraldian zehar saldu ezin izan dituen erosgaiak saldu egin behar ditu, denboraldi berri-rako erosgai berriak ekarri ahal izateko. Beste galde-ra bat litzateke merkealdietan garai-garaiko eta modako arropa jartzen ote duten salgai edota modaz pasatutakoa.

Zikulu saltsa

Honi dagokionez legeak ez du ezer esaten eta dendari bakoitzak ikusi beharko du bere salgaiei etekinik hoherena nola atera. Dena den, merkatarari batek aitortu digu badaudela legez kanpo aritzen diren dendari eta fabrikatzaileak, eta merkealdietan saltzeko merke ekoiztutako arropak egin ohi dituztela bereziki. Dena den, horrelakoak arropa denda handietan gerta daitezkeela aitortu digu, ez ordea, denda txikietan.

“Uste baino gutxiago irabazten du merkataria”

8

Eta merkataritari derrigorrez egin beharreko galdera: Asko irabazten al da merkealdietan? “Nolako merkealdia, halako etekinak”, litzateke erantzunik egokiena, hala ere bi dendariei galdetu eta biek esan digute merkealdietan denda txikiek ez dutela hainbeste saltzen, are gutxiago, jendeak uste duen bezainbeste irabazten, “denda handiek bultzatuta egiten ditugu merkealdia horrenbeste denboraz”, diote, “hilabeterekin nahikoa izango litzateke”. Dena den, egia da kontsumitzaileak askotan merkealdien kontua adarjotze hutsa dela uste duela: “Nola daiteke egun batean prezio batean sal-



Erosi aurretik probatu beharra dago

tzea, eta biharamunean prezioa erdira jaitea? Iruditzen zait merkatariek %100a baino gehiago irabazten dutela merkealdietan ez claudenean, eta merkealdietan egon ohi direla prezioak behar diren bezala”, horixe da hain zuzen ere kontsumitzaile baten iritzia. Dendari batek ezin du gremio osoaren izenean hitz egin, baina bere kasuan behintzat, ez omen da horrelakorik gertatzen: “Bakoitzak bere politika dauka” aitortu digu, “nik nahiago dut urte osoan nahiko moduko prezioak izan eta gero merkealdietan, jaitsiera handirik ez egitea. Gainera nahiko banu ere ezingo nuke garestiago saldu, inork ez luke erosiko, nik oso irabazi tarte txikiekin egiten dute lan”. Pertsona berak.

hala ere aitortu digu, hori ez dela dendari guztien filosofia, eta badirela oso prezio garestiak jartzen dituztenak, nahiz eta gutxiago saldu: “Nik nahiago dut urte osoan etengabe zerbait saldu, eta ez merkealdietan bakarrik”. Hori guztia lotzea ordea, ez da uste bezain erraza, bezeroak, erosgaiak, konpetentzia eta beste mila gauza hartu behar dira kontuan. “Inoiz egingo ez nukeena, gai bat bere kostua baino merkeago saltzea da” esan digu arropa saltzaileak, “nahiago dut oparitzea”. Horixe edo familikoen artean banatu egin ohi dute hain zuzen ere dendari askok merkealdia igaro ondoren saldu ez duten arroparekin, izan ere badaude urteek aurrera egin ahala saltzea oso zaila diren arropak. Dendariak ordea, beste sistema bat ere erabiltzen dute, “saldistek” erosten dizkiete arropak oso prezio merkean, eta gero hauek merkatu eta ferietan saldu ohi dituzte.

Arropa oso garesti

Merkealdien arrakasta arropak berez dagokion denboraldian daukan prezio altua ez ote den galdetu diogu gure elkarrizketatuetako bati. Bere ustez, garaian garaiko arropa, eta kalitatezko arropa urte osoan eros daiteke, ona eta merkea, esan ohi den bezala, “baina bezeroak ez du horrelakorik nahi izaten, erosleak markako arropa nahi izaten du, kalitatea bera baino gehiago interesatzen zaie askori marka, eta jakina hori or-



Saltseatzera joaten direnak ere izaten dira

daindu behar izaten da”, erantzun digu azkar, “agintzen duena bezeroa da” gaineratu digu, “eta bere gustoei jarraituz, markako arropa garestia ekartzera behartzen gaituzte”.

“Kalitatea baino, marka”

Laburbilduz, dendarien ustetan merkealdiak dendariarentzat baino, kontsumitzailearentzat negozio hobea dira. Gainera, merkatari txikiak, merkealdiak legez araututa egon beharko luketela uste dute, alegia denda guztiak izan beharko lukete hasiera data berbara, eta prezioek eta jaitsierek ere nolabait araututa egon beharko lukete.

Arropa saltzailearekin izan dugun elkarrizketa ezin bukatu udaberri-uda garaiko modaren aipamenik egin gabe: udaberri honetan neskek inoiz baino pixi eta soineko gehiago eramango dituzte, beti bezala bakeroak izango dira gazteen artean nagusi, eta kolore leunak nabarmenduko dira: lur koloreak, beisak eta abar.

Kontsumo Bulegoan erosleri egiten zaizkion aholku batzuk:

- Kalitea eta prezioaz galdetu eta biak neurtu etiketak irakurriz, saltzaileari galdetuz, lokalaren baldintzak ikusiz.
- Garantia eskatu.
- Faktura eskatu eta gorde.
- Ez txartelik onartu, dirua baizik.
- Edozein arazo izanez gero, Kontsumo Bulegora jo.

Merkealdiei bereziki dagokienez, gogoratu:

- Arropan argi seinalatuta egon behar dute lehengo eta oraingo prezioak.
- Dendan adierazita egonez gero, kreditu tarjetaz merkealdietan berdin-berdin eros deiteke.
- Erositako gaiak fabrikako akatsen bat baldin badauka, dirua itzultzeko eskubidea dauka erosleak.

“Batzuetan adarra jotzen ari zaizkidala iruditzen zait”

Gaiari buruz iritzi osoa edukitzeko urtean zehar merkealdietan erosi ohi duen emakume batengana jo dugu. Merkealdiak iristen direnean bi aldiz pentsatu gabe joan ohi da dendetera merkealdiak ikustera eta erostera, izan ere, orduan aurkitzen baitu soil-soilik moduko arropa, gainerakoan garestiegia dela iruditzen baitzaio.

Donostia aldera jo ohi du normalean, ez herrian kalitatezko jantzirik aurkitzen ez duelako, hiriburuan aukera handiagoa izan ohi duelako baizik. Hala ere ez da edozein dendatan sartzen. Aspaldi ezagutzen ditu bere gustoko dendak, eta badauka bertako jantzien berri. Kalitatezko arropa bilatu nahi izaten du merkealdietan, “normalean erosi ezin dudana arropa hori, alegia” zehaztu digu. Merke egonagatik ez du edozer gauza erosten. Dena den, merkealdietan nor bere taila eta gustoko arropa aurkitzea oso erraza ez dela ere aitortu digu: “Asko ibili eta begiratu beharra dago”. Asko begiratzeak, ordea ez du esan nahi sekulako iladetan denda ireki zain egotea, erosketak behar diren moduan egiteko lasaitasuna behar baitu. Azkenean, normalean, beti aurkitzen du buruan zeukana.



“Asko ibili beharra dago”

Halaber, askotan egun batetik bestera edozein arropa prezio erdira merketuta ikustean engainatuta ere sentitzen dela aitortu digu: “Nik badakit janzki batek fabrikari gutxi gorabehera zenbat balio duen eta gero halako prezioak ikusten ditudanean sutu egiten naiz”, “Ze portzentaia lortzen dituzte, bada, merkealdiak ez direnean?” galdetzen dio bere buruari, eta bide batez dendariei.

Bestalde, lehengo eta oraingo merkealdiak ez omen dira berdinak: garai batean saldoak izaten ziren merkealdiak baino ugariago, eta merkealdietan ez ziren halako beherapenak egiten, “ohizko prezioa ere ez zen hain altua”.

Bere ustez jende gaztea baino helduak dira merkealdietan dendaz denda ibiltzen direnak, izan ere gazteek askoz ere arropa merkeagoa aurki dezakete edozein garaitan, “guk arropa klasikoagoa janzten dugu, luzeago irauten duena, beraz erosten dugunean ere kontu handiagok ibiltzen gara”.

Bukatzeko, daukan arropa ia gehientsuena merkealdietan erositakoa dela esan digu, era horretan egun-eguneko arropa edota orduan merkatu-ara atera berria den arropa janztea zail samarra dela badaki, baina bere helburua argia da: kalitatezko arropa erostea, modu onean.



AHTren aurkako alegazioak

Udal akordioak informazio eta alternatiba ezak salatu ditu

Hil honetan aurkeztu beharko dute Abiadura

Handiko Trena igaroko den herri guztietako Udalek proiektuari dagozkion alegazioak. Eusko Jaurlaritzara nahiz Madrilgo Gobernura bidali beharko dituzte idatziak. Helburua alegazioak aztertu, eta egokituz jotakoak behin-betiko proiektura bildu eta besteak baztertzea da. Toloaldeko herri guztiak elkartuta idatzi amankomun bat egiteko asmoa daukate alegazioei indar handiagoa emateko.

Hiru puntu nagusi dauzka Adunako Udalak abenduaren 27an hartutako akordioak: batetik, Gasteizko nahiz Madrilgo Gobernuari eskatzen zaie, beste aurrerapausorik eman aurretik, zabal dezatela herritar eta erakundeek parte hartuko duten eztabaida soziala. Eztabaidan honako puntu hauek hartu beharko lirarteke kontuan: trenaren beharra eta ingurugiro, ekonomia eta kultura mailako baldintzak kontuan hartuz proiektuaren alternatibak. "Hori guztia erabaki demokratiko bat hartu baino lehen eman beharreko urratsa litzateke, izan ere era horretako azpiegitura batek Euskadiren etorkizuna erabat baldintzatuko du".

Bigarrenik, orain arte Udalari helarazi zaion informazioa oso eskasa dela adierazi dute, eta berarekin ezin dela proiektuak ingurugiro mailan

izango duen eraginari buruzko inongo ikerketarik egin. Hirugarrenik, proiektuaren aurka agertzen da Adunako Udala, "benetan ondorio latzak ekarriko baititu gure herrirako, bere etorkizuna erabat baldintzatuz". Beren esanetan bizilagun gehienek ongizatea eta bizi kalitatean izango luke eragina eta egun herrian daukan erakarmena galduko luke.

Txosten teknikoak

Akordioarekin batera ingurugiro teknikariek egingako txostena helarazi zaie erakundeei: antza denez, paper zabortegei eta Anzibar errekaostaren artetik igaroko da trena eta bertan hondortzeko arriskua daukan gune bat dagoela aurreratzen du txostenak. Halaber, Miravelles meategiko galerien orekan ere eragina izan dezakeela pentsatzen dute, horregatik, hori guztia ongi aztertu beharko luketela uste dute aldeztu aurretik.

Trena hirigunetik oso hurbil igaroko dela aurrirakusten da, beraz "herriko biztanle gehienek jasan beharko lukete zarata eta eragin bisual handia, paisaia izugarri eraginez". Trenbideak "langa efektua" sortuko du pertsonentzat nahiz animalientzat. Beharrezkotzat jotzen da hesiz ongi inguratutako babes bat bi aldean arretko zirkulazioa ekiditeko.



Jabier Zabala

Bestalde, eta lanek eragingo dituzten lur mugimenduak kontuan hartuta, hondarrak husteko leku egokia aukeratzea proposatzen dute, behar ez diren lekuan botaz, kalteak ugari ez daitezken. Azkenik, proiektuari egin zaizkion beste alternatibak ezaugu nahiko lituzketela dio txostenak, eta zeintzuk izan diren beraiek baztertzeke arrazoiak.

BENITO

HARATEGIA
URDAITEGIA

KALE NAGUSIA, 22 ☎ 69 11 49
ARROA KALEA, 4 ☎ 69 13 50

BILLABONA

AURRERA TABERNA

Girorik ederrena gazteriarentzat!!

ZIZURKIL

HERCULES

Aseguruak ARGENTARIA

Amaia Kortajarena

Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34

ZIZURKIL



Bazkardo parkeko lanak bukatzeaz

Andoain


Nafarroa enparantzako lanek lekune publikoa hobeto aprobetxatzea dute helburutzat

Asko izan dira Bazkardo parkean zeuden hutsuneak konpontzeko egin behar izan dituzten lanak. Izan ere 1985ean egin zen parkea nahiko egoera txarrean egon da azken urte hauetan.

Hutsune handien artean honako hauek aipatu behar dira: zoruaren egoera kaskarra; frontoiko hormen margoa zahartuta, hala nola haurrek jolas dezaten dauden ibilgailuena; Sarmendi aldera joateko eskaileren egoera txarra; argiztapen eskasa eta hondatuta dagoen iturria.



Nafarroa enparantza



Bazkardo parkeko lanak

Beraz, zorua konponduko dute, hormak eta haurrentzako parkea margotu dituzte eta iturria egokitu. Bestalde, urte hauetan zorua asko hondatu da arekak ez egoteagatik batez ere, hortaz, arekak eraikiko dituzte, argi gehiago jarriko dituzte, eta eskailerei dago-kionez, deserosoak direla eta jendeak Sarmendi aldera joateko lorategia zeharkatuz bidezidor bat egin duela ikusi ondoren, lanak egitean antzeko bide bat egokituko dute oinezkoentzat. Oraingo lan hauetan egin behar ez badute ere, beharrezkotzat jotzen da haurrak jolasean ibiltzen diren parkean kautxuzko zoru

berezi bat jartzea minik har ez dezaten. Lanak egiteko aurrekontua 3.300.000 pezetako da.

Nafarroa enparantza

Lanak enparantzari itsatsita egongo den parkeari egokituta egingo dituzte. Enparantzak bi alde bereiztuak izango ditu: bi solairu izango dituen lurrazpiko aparkalekuen gainekoa batetik, eta Pio Baroja kalera ematen duena bestetik. Enparantzan berdeguneak jarriko dira, eserleku batzuk eta kiosko antzeko bat. Enparantza gainean ere aparkaleku batzuk egokituko dira. Lanek 61.500.000 balioko dute.



XIXORI

BELARDENDA

DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

MINIKOST

LIBURDENDA PAPERDENDA

KALE NAGUSIA, 20 - ☎ 59 16 57
ANDOAIN



Karrikako bizilagunek semaforoak nahi dituzte

“Beti zeziotan ibili beharra dago gure eskakizunei jaramon egiteko”

Orain dela hiruzpalau urte eskatu zioten lehenengo aldiz Karrikako bizilagunek Udalarari Karrika kaletik hasi eta Zumea bitarteko ibilbidean semaforoak jartzeko ikerketa eta aurrekontua. Geroztik Karrikako auzo elkarteak behin baino gehiagotan eskatu izan dio Udalarari gaiari buruz hitz egin dezaten bilera batean elkartzeko. Orain dela urtebete herrian sinadura bilketa ere egin zuten herri osoko bizilagunen laguntzaz euren arazoak oihartzun handiagoa izan zezan. Auzo elkarteak kideek diotenez, oraindik ez dute inongo erantzunik jaso. Dena den, ez daukate auzia bere horretan uzteko asmorik eta adierazi digutenez presio bide berriak bilatuko dituzte.



Udalak ikerketa eta aurrekontua agindu zien

12

Ertzaintzak berak eginiko idatzietan jasota dago ibilbidea arriskutsua dela. Horren lekuko dira etengabe gertatzen diren istripuak, “hilero izaten dugu zerbait, eta hildakoak ere izan dira” adierazi digu bizilagun batek. Istripuen arrazoiak ibilgailuek darabilten abiadura handia izan ohi da beti. Izan ere, dauden zebra-bide eta abiadura murrizteko seinaleei inor gutxik egiten die jaramon. Horregatik jotzen dute beharrezkotzat semaforo bat edo bat baino gehiago jartzea.

Udalak orain arte eman izan duen erantzun bakarra arazoa berari ez dagokiola izan da, alegia, errepidea Diputazioarena dela, oraindik garai bateko N-I izaten jarraitzen baitu, eta hori dela eta beraiek ez dutela zer eginik. Diputazioak, ordea, behin baino gehiagotan adierazi die bizilagunei antzeko arazoa zeukaten herrietan auzia konpondu egin dela, Diputazioak semaforoak jartzeko dirulaguntzak ematen baititu.


Semafoeren auzia ahaztu gabe Karrikako bizilagunak, halaber, kexu dira eskolara sartu eta irtetzeko orduetan neska-mutilei bidea zeharkatzen lehentasuna emango dien udaltzainik ez dagoelako, “hasi ziren etortzen, be-

hin bai eta hurrengoan ez, baina aspaldi ez da udaltzainik hona etortzen” diote auzokoek.

Kezka bat baino gehiago

Une honetan kezkatzen dituen beste hainbat arazoren berri ere eman digu auzo elkarteak: nahiko haserre daude batetik, jaietarako ematen zaien dirulaguntza txikia dela eta; bestetik, Donostiara erresidentziara joaten den autobusa auzotik igaro dadin ahaleginak egiteko behin baino gehiagotan eskatu omen diote Udalarari, baina kasu honetan ere ez omen dute erantzunik jaso eta, azkenik, autobia hurbiltasunak ere kezkatzen ditu, “errepide lotura guztiak etxe ondoan izango ditugu”.

Zazpiren bat urte dauzka Karrikako auzo elkarteak. Bere esanetan lan gogorra egin ondoren lortu dituzte auzorako hainbat eta hainbat hobekuntza: “Lehenengo auzoaren urbanizazioa izan zen, Algodonerako eraikuntzan geneukan arazoa ondoren, hodiaren auzia jarraian, eta orain semaforoak. Ikasita daukagu gauzak behin esanda ez dagoela ezer lortzerik” diote bizilagunek, “eta jaramon egiteko zeziotan ibili beharra dagoela”.



LANBIDE EZBERDINEN ARTEKO KOORDINAKETAK

GASA ETA BEROGINTZA

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGEITSARITZA



Aseguruak - Aholkularitza
PROFESIONALITASUNA NAGUSI

Kaleberria, 26 behea
☎ 59 08 14
ANDOAIN





Sorabillan eraikuntzak egiteko Oinarriak

Hektareako gehienez 15 eraikuntza eraiki ahal izango dira

EAJ-PNV eta HBren aurkako botoekin onartu ditu Udalbatzak Sorabillako Egoitza Sektorearen Iharduketaren Oinarriak. Oinarriek ezartzen dituzte bertako hirigintza proiektua burutzeko eragile, jabe, eraikitzaile eta erosleen betebeharrak eta eskubideak. Onespenera behin-behinekoa izan da, jende aurrean eduki ondoren eman go zaio behin-betikoa.

EAJ-PNVren ezezkoa Udalak Plan Orokorra onartu zuenean eman zion ezezkoan dago oinarrituta, alegia, etxebizitzak kasku zaharrea, "Ensanche" deituriko inguruan eraiki behar direla uste izan dute beti jeltxideek eta ez herriaren aldirietan. HBk berriz, beti pentsatu izan du Sorabilla ingurua nekazal gunea izaten jarraitu beharko lukeela, eta arrazoi horregatik, hain zuzen ere, eman die ezezkoa Oinarriari.



Sorabillan txaletak egingo dituzte

Plan partzialak esaten duenaren arabera gehienez hektareako 15 eraikuntza egin ahal izango dira, eraikuntza isolatuak beheko solairua eta bizitzeko beste bi solairu dituztela, alegia lau etxebizitza gehienez. Gunearen zabalera kontuan hartuta hamabi eraikuntza egitea proposatzen du Plan Partzialak. Lur gaineko 28 aparkaleku izango dira eta eraikuntzen barruan 86 gutxienez.

EUSKARA ZERBITZUKO

ARDURADUN BERRIA

PEIO ITURRIOZ Zelaia izango da aurrerantzean Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuko arduradun berria. Bost urtez aritu da Udalean bertan itzulpen eta interpretaritzan lan egiten, eta hori baino lehen Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuko arduraduna izan zen.



Jon Unanue Lópezek bete izan du bost urtez geroztik lan horixe. Joan den abuztuan idatziz bere dimisioa aurkeztu zuen arte. Idatzian jasotzen denez, dimisioaren arrazoia Udala euskararen normalkuntzan darabilen politikarekin bat etorri ez izana da. Jon Unanue Euskara Zerbitzuko arduraduna izan aurretik Udaleko itzultzailea eta interpretaria zen, eta bere dimisioaren lan horretara itzuliko da.

146 LAGUNEK EMAN DUTE IZENA

Hilaren 9an itxi zen koartela zeneko babes ofizialeko hamabost etxebizitzeko bat eskuratu ahal izateko eskaria egiteko epea. 146 lagunek eman dute izena. Eusko Jaurlaritzaren eskuetan daude honez gero eskariak. Beraien lehenengo lana eskariak aztertu eta horien artean benetan baldintzak betetzen dituztenak kontuan hartuta, behin-behineko zerrenda egitea da. Ondoren, horien artean zozketa egingo da eta erosleek nortzuk diren jakin ahal izango dute.

Etxebizitzak eskuratu ahal izateko honako baldintza hauek bete behar izan dituzte eskatzaileek: duela hamabi hilabete Andoainen bizi izatea, Andoainen lanpostua izatea eta urteko soldata gordina 1.800.000-2.500.000 bitartekoa izatea.


fotocolor

ERREBELATUA ORDU LAN

**Ezkontza, Jaunartze, e.a. en erreportaiak.
Lan Industrialak**



Jose Ignacio Unanue
Juan Bta. Erro 1 - ☎ 59 43 32
20.140 ANDOAIN



“Osasuna zahartzaroari begira”

Hogeitamar jubilatuko inguru bildu ziren hitzaldian

Osasunari buruz, hain zuzen ere, osasunak zahartzaroan daukan garrantziari eta osasuna bera ulertze-ko erari buruz hitz egin zuen Bittorio Tapiz Asteasuko sendagileak Kultur Etxean eskaini zuen hitzaldian. Ainhoa Etxabe hirugarren adineko dinamizatzaileak herriko jubilatuekin batera antolatutako beste ekintzetako bat izan da honako hau. Eta herritarren artean izan duen harrera ona ikusita, gaiari buruzko hitzaldi gehiago izango direla ia ziurra da.

Osasuna bera zer den, edota nola ulertu behar den azalduz ekin zion Bittoriok hitzaldiari: “Osasunaz ez dugu gaiso gaudenean bakarrik gogoratu behar, hau da osasuna ez da gaisotasun falta soil-soilik, osasunak askoz ere esanahi zabalagoa dauka”. Osasuna egoera fisikoa eta psikikoa dela argi utzi zuen. Hori argitu ondoren, “bizitza norberarena baino ez da” azaldu zuen, “eta guk geuk baino ezin dugu erabaki zer egin berekin eta nola jokatu”. Ildo horri jarraituz sendagilea aholkulari bat baino ez dela argitu zuen, eta pertsonak beregana jotzen duenean ahalik eta informazio gehien eta zehatzen jasotzeko eskubidea daukala esan zien bertakoei. “horregatik, kontsultan inoiz ez da beldurrik izan behar behar diren galdera guztiak egiteko”.

Denbora ere izan zen bileran hizpide: “Behin adin batera iritsita, azken txanpan gaudela onartu behar dugu” esan zuen argi, “edadearen mugekin bizitzen jakin behar dugu. Horrek ez du esan nahi gure bizitzaz gozatzeko modurik ez daukagunik, azken urteak gustoko gauzak eginez, inoiz egin izan ezin ditugun gauza



Jende ugari bildu zen Kultur Etxean

horiek eginez eman behar ditugu, geure buruarekin konforme egon gaituzen”. Entzuleak adi-adi egon ziren Bittorio heriotzaz hitz egiten hasi zenean, “ekidin ezinezkoa denez, ahalik eta modu onenean iristen saiatu behar dugu”.


“Ez dago obsesionatu beharrik”

Halaber, ez gartzetan ez zahartzar-ron gaisotasunak direla eta, obsesionatuta ez dela bizi behar errepikatu zuen behin eta berriz, hala ere, gorputzaren aldaketa eta sintomei adi egon beharra dagoela argitu zuen: “Ez dago analisiak eta txekioak etengabe egin beharrik -bestalde seguritate soziazialak ezingo luke zama hori hartu, esan zuen irribarrez- baina badaude zenbait gauza kontuan hartu behar direnak: ginelokogoi bisitak, kolesterola, azalaren aldaketak eta abar, baina beti ere obsesio bihurtu gabe”.

Azkenik gorputzari baino, izakia berari buruz gogoetak egiteko hainbat galdera utzi zituen Bittorio-ak airean: “Denbora motzean heriotzera eramango gaituen gaisotasunen bat izanez gero, jakiterik nahiko al genuke?: Mentalizatuta al gaude eda-deak berak ekarri ohi dituen aje eta mugekin bizitzeko? Gureak nahiz gurekin bizi direnenak?: Gure senar, emazte, anai-arreba edadetuak, behar bada, gu baino lehenago joango dire-

la onartzeko mentalizatuta al gaude?”.

Galderak bota, bota zituen: erantzunak, noski, ez ziren jende aurrean emateko modukoak, nork berak gogoetak egin ondoren bilatzekoak baizik, hain zuzen ere lehenengo hitzaldiaren helburua horixe izan baitzen jendeari hausnarraraztea. Dena den, hurrengo bilera batzuetarako gaiak ere proposatu zituen sendagileak: buru galtzea, sexualitatea hirugarren adinean, elikadura eta kirola eta abar. Bertan bildutakoek ez zuten gauza handirik une hartan esan, baina ezagun zuten bilera gustoko izan zutela. Ainhoa behintzat proposamenak eta ideiak biltzen geratu zela iruditu zitzaigun.



B. Tapiz herriko medikua



Herri olinpiadak

Hamazazpi koadrila eta 200 gazte inguru ari dira ekintzetan parte hartzen

Azaroaren 26ean eman zitzaien hasiera eta martxoak 11an dago olinpiaden amaiera aurrikusita.

Euskara batzordeak koadrilei eginiko deialdiaren ondorioz sortu zen ekimena eta neguko asteburuak animatzeaz gain, koadrilen artean euskara zabaltea eta gazteen arteko harremanak estutzea dute ekintza hauek guztiak helburutzat.

Orain bizpahiru urte koadrilek partehartze handia izaten zuten Santio jaietan. Azkenenago urtean berriz, giroa dexente moteldu omen da euren aldetik. Koadrilen artean lotura berriak sortu eta aurrerantzean herriko giroan nola-baiteko eragina izango duela uste dute antolatzaileek gazteek.

Beste herri batzuetako esperientziatara jo zuten hasieran herri olinpiadak zer ziren eta nola antolatzen ziren jakiteko. Gazteei horren berri eman eta harrera ezin hobea izan da: 14-36 urte bitarteko hamazazpi koadrila ari dira parte hartzen. Egitarauaren egun bakoitzaren antolaketa koadrila baten esku dago.

Aurkezpen egunean koadrilek zuziak piztuta herriari eman zioten bira, eta horixe izan da ekintza seinalatuenetako bat. Giroa, gazteen esanetan, aparta izan zen eta gau hartako argi eta builek herriari olinpiaden hasiera adierazteko behintzat balio izan zuten. Herri kirolak antolatu zituzten ondoren, eta egun hartako bertso eta irrin-



Arratzaindik behera

tzi lehiaketak ere uste baino harrera hobea izan zuten. Bide batez adierazi, antolatzaileak egun hartan "erdi bat-batean" botatako bertsoak ari direla biltzen. Nonbait, batek baino gehiago jasotzea merezi izan zuen. Mendi martxan ere jende ugari hartu zuen parte, nahiz eta eguraldiak ez lagundu. Eta ondorengo dantza lehiaketak argi utzi zuen behintzat, edadetuena dabilzala dantza kontuetan inor baino iaioago.

Konpetentziarik ez

Ekintza bakoitzeko garaile bat izaten da eta puntuazioa ere jasotzen da, hala ere, antolatzaileek argi utzi nahi izan dute joko horiei konpetentzia kutsua kendu nahi dietela, eta azkenean, irabazlerik egongo bada ere, horixe izango dela gutxienekoa. Hala ere, esan bezala, orain arteko puntuaketa ikusita, olinpiada hauetako ranking-aren lehenengo postuan Kili Kolo koadrila dago momentuz.

MARTXOA BITARTEKO EKINTZAK:

Urtarrilak 29:

-Errebote partiduak eta jolas sorpresa.

Otsailak 11-12:

-Autobiako horman mural margoketa eta haur jolasak: kanikak, dolar jolasa, txapa jolasa, brileta, soka saltoa.

Martxoak 5:

-Txirrindu lasterketa eta pentatloia: patinak, triziklo lasterketa, ski lasterketa, hankak lotuta, zaku lastarketa.

-Ski lasterketak badu bere trukua

Martxoak 11:

-Bazkaria, parodia eta txaranga.

PARTE HARTZEN ARI DIREN KOADRILAK:

- KILI KOLO
- POTTINDA
- INTZAK LASAI
- LIMON KAS
- JUN DA BERTAN
- 78KO BELAUNALDIA
- EUSTAK TRIPONZI
- ENER IADI
- JO TA SU
- IZUTEZINAK
- FINISTRO PECADOO
- HARTZAK ETA JANIZAK
- 78KO BELAUNALDIA (II)
- BAKO ETA PANTZART
- DUDIK EZ
- DENOK GARA PEPE REI (A)
- THE BEST PEOPLE
- DENOK GARA PEPE REI (B)



Herriz herri

Gozogintza eta opilgintza ikastaroa

Ikasleen %70ak orain arte lana aurkitu du

Aurten ere Tolosaldeko enplegu eta hezkuntza bulegoak antolatutako gozogintza eta opilgintza ikastaroak harrera ezin hobea izan du eskualdeko gazte langabeen artean. Gaur egun hamasei ikasle ari dira parte hartzen eta euren motibazioa eta orain artekoek lan merkatuan izan duten arrakasta ikusita, oinarritzko ikastaroaz gain 600 orduko ostalaritzako ikastaroa eskaintzea pentsatu dute antolatzailerak.

Opilak, hostorea, tartak, tezko pastak eta pastelak egiten ikasten dute gazteek Felipe Igoa irakaslearen ardura-pean, oinarritzko gozogintza alegia, "gehienek sukaldean ezer egiten ez dakitela etortzen dira normalean ikastarora" dio Maggi Altolagirrek bulegoko teknikariak. Hala ere, ikastaroa motz samar gelditu ote den susmoa daukate eta gozogintzan turroia, txokolatea eta jelatuak egiten ikasteaz gain, ostalaritza ikastaro bat izango da aurrerantzean.

Ikastaro berri honen beste arrazoietako bat lan merkatua bera da: "Orain arte ikastaroan parte hartu dutenen %70ak aurkitu du lana Gipuzkoa osoko gozotegi eta jatetxeetan" dio Maggik, "baina askotan eskatu izan digute gozogintza jakiteaz gain sukaldaritza ere ezagutzen duen jendea".

Hasieran 16-19 urte bitarteko gazteei baino ez zegoen ikastaroa zuzenduta, 1991az geroztik ordea, oinarritzko



Tolosaldeko neska eta mutil gozoenak

ikasleekin baino ez dauzkaten 20 urtez gorako gazte langabeei egin izan zaie eskaintza. Ikastaroan parte hartu ahal izateko beraien gogoia eta motibazioa da gehien neurtzen dena. "Eskualde kanpoko eskari asko ere izan ohi ditugu, baina ezetz esan behar izaten diegu" dio Maggik. Bestalde, tailerra ere ez da oso handia, bai labe, lau mahai, izozgailua, eta bi hozkailu daude eta ikasle gehiago ezingo lituzke hartu.

Gozogintza ikasten hasi baino lehen motibazio ikastaroa egin ohi dute hautatuek, bertan ofizioaren izaera eta ezaugarriak azaltzen zaizkie argi eta garbi ikasleei, "izan ere oso lan gogorra da, beste guztiek jai dutenean izan ohi dute beraiek lan handiena eta gauzez gainera, ezertan hasi baino lehen garrantzitsua da horretaz jabetzea" azaldu digu teknikariak.

Tolosaldeko gozogintza ospetsua

1988. urtean antolatu zituzten lehenengo aldiz ikastaroak. "Tolosaldeko gozogintza ezaguna da Gipuzkoa osoan" azaldu digu Maggik eta inguruko gozogileekin hitz egin ondoren lan merkatuan harrera ona izan zezakeela uste zutela eta aurrera egin genuen" azaldu digu Maggik. Eta dioenez, uste baino harrera hobea egin zaio, horregatik lortu dute aurten IMIk ikastaroa homologatzea, dirulaguntza berrien bitartez ikastaroa zabaltzeko aukera izango dutelarik.

Billabonan egitearen arrazoia bulegoko ikastaroak Tolosatik kanpo atera nahi izatearen ondorioa da. Hiriguneko Flemming eskolan ikasgela bat egokitu zitzaion eta aurrerantzean ere Udalak eginiko zenbait egokitzen lanei esker bertan jarraitzeko asmoa daukate.



FOTO-BIDEO-ARGAZKI

KALE NAGUSIA, 19 behea

30 07 27
ANDOAIN

BIKOITZ


- Argazkiak errebelatzen ditugu
- Estudio argazkiak egin
- Karnet argazkiak instantean
- Ezkontza erreportaiak. Argazkiak, bideoak

OCTAVIO CANORA

Dr. Huizi, 8 behea
ANDOAIN

PAPIRO

KALITATE HAUNDIKO
KOADERNAKETAK



Erretako etxeen alde hermandadea

Elkartekideek aurrerantzean 50.000 pezeta emango dute

Aspaldikoa da "Erretako etxeen aldeko hermandadea". Bere sorrera zehatz noizkoa den jakite-rik izan ez badegu ere, borregeita hamarren bat urte izango dituela uste dute batzuek. Egun hogeitaz bakoitzean inguru ditu, eta abenduaren amaieran egin zuten biltzarrean erabaki zuten elkartekideen base-rietako bat erretzen den bakoitzean, beste guztiek 50.000 pezeta bana emanaz lagunduko dutela.

Antton Amonarriz alkateak adierazi digunez elkartearen beraren izpiritua da, dirulaguntza baino garrantzitsuagoa. Antzinako ohiturarai jarraituz bizilagunen arteko harremanak sendotu eta elkartasuna eragitea da elkartearen existentziaren arrazoietakoa bat. "Lehen horelako hondamenak, edota lagun askoren beharra izaten zuten lanak burutzeko auzo-lana egiten zen" dio Anttonek, "gaur egun ez da horrelakorik egiten, baina bizilagunen dirulaguntzarekin lagundu nahi zaio behintzat, etxea erretzen zaionari".

Dirua eman behar duenarentzat diru dexente izan ohi da 50.000 pezeta, "jaso behar duenarentzat, berriz, ez hainbeste" dio Anttonek, "azken finean baserria berreraiki behar duenak ez du diru horrekin gauza handirik egingo".


Dirua baserria erre eta handik egun batzuetara jasotzen du etxearen jabeak, elkarte berehala elkartu eta bizilagunek dirua hantxe bertan eskura ematen baitute. Gainera, hermandadeak ez du soilik etxeak erretakoan lan egiten, beste hondamen mota batzuk ere hartzen ditu kontuan.

Hildako familiei laguntza

Abendua amaierako bileran dirulaguntza era horretan eman beharrean beste aukera batzuk ere aipatu ziren: urtean zehar kopuru zehatz bat ematea, edota elkartek berak baserrien aseguru egitea. Azkenean, orain arteko funtzionamenduarekin jarraitzea erabaki zen. Beste batzuek elkarte ere utzi zuten gaur egun aseguru onak daudela esanez eta horrelako ekintzen beharrik ez dagoela. Azkenengo baserria orain dela hiru urte erre zen, Larribide baserria hain zuzen ere, orduan 40.000 pe-

zeta jaso zuen jabeak elkartekide bakoitzeko.

Hau ez da Larraulen elkarlanean eginiko ekintza bakarra, antzeko zer-bait egiten dute bizilagun bat hiltzen denean: hiru pertsonaz osatutako batzorde bat aukeratzen dute urtero, eta larrauldar bat hiltzen den bakoitzean etxez etxe joaten dira hiruak berria ematen, eta bide batez familia bakoitzak diru kopuru bat ematen du hiletak eta lurperatzailearen lana ordaintzen laguntzeko.



Larribide baserria eraberrituta

SORTU POOK
Grafikak

Elbarrena Auzoa, 15 - Tel. 69 00 37 - Faxes: 69 07 58
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)

OGIZURI

Okindegia

ZURI ZURIA...


Lizarra kalea, 32
☎ 69 18 96 ASTEASU

OGI-GOXO

Okindegi eta Gozotegia

EDO BELTUXEAGOA,
BAINO GOXO
GOXUA!!

Kale Nagusia, 26
☎ 69 32 94 BILLABONA



Herriz herri

Zizurkil

Joxe Larrañaga, EAko zinegotzi eta Kirola batzordeburuak azken kargu honi dagokion dimisioa aurkeztu zuen azaroaren 14ko Udal batzan. Udalaren ihardunaren eraginkortasun eskasa orokorrean eta 1994ko aurrekontuak nahiz 1992 eta 1993ko likidazioak azaroan oraindik aurkeztu ez izanak izan dira dimisioaren arrazoiak. Alkatetzan dagoen HBri eta Hazienda batzordeko buru den EAJ-PNVri zuzendu dizkie batez ere, Larrañagak salaketak. HBk nahiz EAJ-PNVk Udaletxeko arazo

tekniko eta egituraketari egotzi diete atzerapena, eta gaia konpontze bidean dagoela ziurtatu dute. HBk Larrañagak Udala ezengonkor bilakatu nahi duela salatu du, Udal karguetatik kanpo geldituz eta hurbiltzen ari diren hauteskunderako bidea prestatuz. EAJ-PNVk berriz, legealdia hasi zenetik EAK jarrera negatiboa izan duela salatu du, erabaki guztien aurrean ezezkoa edo abstentzioa emanaz, herriaren alde egin beharrean alderdikeriaz jokatu.

EAren kritika gogorak HB eta EAJ-PNVren aurka

Joxe Larrañaga zinegotziak kirol batzordeburu karguaren dimisioa aurkeztu du

“Arrasto liluragarria utzi dute herri honetan gauzak nola egin behar ez diren jakiteko”

Joxe Larrañaga.

“Azaroan aurkeztu gabe zuden 1994ko aurrekontua eta 1992-93ko likidazioak egin gabe. Lan hori egiteko herrikoa ez den langile bat hartu zuten. lanpostu horretarako herritarrei inolako aukerarik eman gabe”.

“Aurreko hiru batzarretara joaterik izan ez nuen lan arazoak zirela medio, eta Udaleko egoera ikusirik Kirol batzordeko kargua utzi nuen. Bileran nere kezkei buruzko galderak zuzendu nizkien HB eta EAJ-PNVri. Gaiak mahaian uztea erabaki zen”

Larrañagak batzarraren aktan bere galderak ez azaldu izana salatu du. Bertan aurkeztu zuten aurrekontu txostena “lotsagarri aurkeztu zuten. urte hasieran EA-EuEk idazkariari beste herri bateko aurrekontua aurkeztu genion nola nahi genuen eta egin behar ziren ikasteko”. Abenduan onartu ziren aurrekontuak.

1993 urte amaieran Udal langileek greba egun batzuk egin zituzten. Langileek eta euren artean HBko zinegotzia den eta liberatuta dagoen Gurutze Asuabarrenak egun horiek kobratu izana salatu du Larrañagak.

“Alderdikeriaz jokatu du beti, eta ez herriaren alde. Hasieratik esan zuten PNVrekin ez zuela lanik egingo”.

Juanjo Aranburu Hazienda-Pertsonal batzordeburua.

“Hazienda batzordetik hileroko kontrolatu dugu zor tasa. Inbertsio ugari egin ditugu -guztiak egin beharrekoak-, eta horiei esker egun Zizurkilek ondasun handiak dauzka. Egia da diru-likidez arazoak izan ditugula, baina Udaletxeko egituraketaren ondorioa izan dira. Aurrekontua lotsagarri aurkeztu zela dio Larrañagak, kontuen azalpenik eman gabe; berak oso ongi daki ataletan banatu nahi badu idazkariarena jo dezakeela”. Langileek kobratu dituzten greba egunei dagokienez ezjakituriaz gertatu da, baina, hala ere, langileei orain dirua kentzearen aldekoa ere ez da”.

“Ez da egia kontratatu dugun tekniko inongo irizpiderik gabe aukeratu dugula: hiru aurkeztu ziren, bik lana aurkitu zuten eta gelditu zenak gainera, besteekin alderatuz esperientzia zeukan” dio Juanjok eta, “Joxe hautaketa egunean egon izan balitz jakingo zukeen”.

“Gaizki hezitako ume kapritxoso baten ostikoketa izan da dena”.

Mikel Arrastoa alkatea.

“Aurrekontuak berandu aurkeztu izanaren arrazoiak Udalean zenbait lanetaz arduratuko diren langile faltaren ondorioa da. Horretarako kontratatu dugu teknikari bat. Udalaren egoera ekonomikoari dagokionez, gure zor maila %19-21 bitartean dago. Diputazioak aholkatutako muga berriz, %25ean dago. Beraz, egoera normalean gaudeela esan daiteke, azken bi legealdietan egin ditugun inbertsioak kontuan hartzen baditugu: frontoia, Kultur Etxea, Iriarte Etxea, Moztaneko parkea eta abar”. Arrastoa bestalde, EAko zinegotzia Hazienda batzordeko partaidea izanik, kirol aurrekontuak aurkezteko baka-rik agertu izana egotzia dio.


Grebari dagokionez Arrastoa ez du ukatzen egun horiek kobratu izan direnik, eta kezka agertu ondoren Udal batzan bertan erabaki zen aurrerantzean ez ordaintzea. “Onartu ezin duguna da, Larrañagak nahi duen bezala, orain urtebete kobratutako dirua langileei kentzea” gaineratu du.

“XXI. mendearen ateetan ingurunea bebesteak berebiziko garrantzia hartu du”


Billabona XX. mendea: Eraldaketa baten irudiak

“Lurrari gertatzen zaiona, lurreko seme-alabei ere gertatzen zaie. Gizakiek lurrari txu egiten diotenean, euren buruari ari dira txu egiten. Izan ere, guk badakigu lurra ez dela gizakiena; gizakiak lurrarenak baizik. *Seattle buruzagi handiaren mezua (1855)*”, esalege honek eman dio hasiera Ingurunearen Lanbide Etxeko ikasleek egin duten erakusketari, “Billabona XX. mendea: Eraldaketa baten irudiak” izeneko, erakusketari hain zuzen ere. Izenburuak dioen

bezala Billabonak azken mende honetan bizi izan duen eraldaketa isladatu nahi izan dute argazki eta testuen bitartez Lanbide Etxeko ikasleek; gizakiaren bizimodu aldaketak ingurunean, hirian nahiz naturan edo nekazal lurretan nola eragin duen erakusten baitigute. Dena den, eta ikasleek adierazi digutenaren arabera, erakusketa ikusi eta ikasitakoaren interpretazio bat baino ez da, “daitekeena da besteren batek beste ikuspegi bat izatea” azpimarratu digute.



© TRU CHUELO



Autobiako lanak

XX. mendea aukeratu izana ez da kasualitatea, izan ere Billabonan, Gipuzkoa eta Euskal Herriko gainerako herrien antzera aldaketarik nabarmenenak mende honetan gertatu ziren, 60eko hamarkadan hain juxtu. Billabonan esate baterako, urte horietan eman zitzaion bultzada izugarria industrializazioari, horrek eragin zituen aldaketa guztiak barne, eta Billabona herriaren hirigunea ere zeharo aldatu zuen autobia edo N-I errepidea eraiki zuten 70eko hasieran, herria aldenik alde zeharkatuz. Industrializazio handia mende honetakoa baldin bada ere, ikasleek ez dute ahaztu nahi izan Billabonan XIX. mendearen bukaeran ia bazegoela nolabaiteko industria tradizioa, horren adibide dira Subijana oihal lantegia edo La Salvadora paperfabrika, azken hau 1871. urtean eraiki zuten.

Ikasleek diotenez mende honetan hirigintza garapena era desordenatuan gertatu da, ingurunearen ondasunen balioaren kontzientziarik gabe. Gaur egun kontzientzia handiagoa dagoenik ez dute zalan-tzan jartzen, hala ere inguruneari zor zaion errespetuz oraindik ere jokatzen ez dela iruditzen zaie. Horrez gain herritarrek gai hauei buruz euren iritzia eman beharko luketela uste dute.

“Hirigintza garapena era desordenatuan egin da orain arte”

XXI. mendeari buruz ere galdetu diegu ikasleei. Bartzuen ustez Udalaren egitasmo berrien arabera herria masifikatzen jarraituko dute eraikuntza berriez; dena den zenbait ekintza onerako ere izan direla aitortu dute, lehen baino berdegune gehiago baitaute. Hala ere, gaur egun arazo larriak ere badaudela uste dute, Oria ibaiaren biderapena eta Leitzarango autobia kasu.

Panelez panel

Bost panelek osatu dute erakusketa. Lehenengoak naturan gertatu diren aldaketak eman ditu aditzera. Bigarrenak, Billabona mende hasieran nolakoa zen erakutsi du. Hirugarrenak egungo Billabonaren irudia eman du. Laugarrena naturan nahiz hirigunean eragin nabarmena izan duten irudiek osatu dute. Azkenengo panela berriz, etorkizuneko panela da.

“Amasamendia, etengabe aldatzen ari den mendia”, da lehenengo panelaren izena, eta bertan ongi adierazten da mendiak bizi izan dituen aldaketak. Hasieran gizakiaren eraginik gabeko mendia erakutsi da pagadiz eta hariztiz josita. Erreka ertzeek ere sahatsek eta zumeek inguratzen zituzten eta ur gardenetan amorrainak, igarabak eta izokinak bizi ziren. Mendiak berriz, hartzak, o-tsoak, azeriak, oreinak, altzeak eta bestelako basa abereen bizilekua ziren. Jarraian nekazaritzak, artzaintzak eta basoaren ustiapenak ingurunean nola eragin duen isladatu nahi izan dute. Basoan pinuaren agerpena izan da aldaketa horren ondorio nabaria; horrek ekarri duen lurraren pobretzea eta animaliei dagokienez aipatzekoa da zenbait basa espezieen desagertzea. Azken urte hauetan hasierako paisaia hura berreskuratzeko ahaleginak

aipatu dituzte ikasleek. Aipatzekoa da Ingurunearen Lanbide Etxeko oihan tailerreko ikasleak bertako basoa berreskuratzeko egiten ari diren oihaneztape-nak. Bestalde, industria eta zerbitzuak dira, zalan-tzarik gabe, billabonatar gehienek bizibidea gaur egun, dena den, oraindik ere base-rria bizibide duten herritar asko daudela gogoratu dute erakusketan.

Mende hasieran

XX. mendeko lehen 50

urteak erakusteko dago batipat eginda. Bertan ikusten dira herriko baserritarrak, ikazkinak eta bestelako artesau lanbideen aztarnak. Aipatzekoa da, hala nola, garai batean Tolosa-Donostia ibilbidea egiten zuen trenaren argazkia. 1951ko Billabona plano batean ikusi daiteke garai hartan hiriguneaz gain, gainerako eremu gehienek nekazal lurak zirela. Subijana eta La Salvadora lantegi handiak ziren salbuespen bakarrak.




Oria ibaiaren egoerak onera egin du

“Azkenengo urteetan berdegune gehiago dago”

1960.az geroztiko irudiak herriaren oso bestelako irudia erakutsi dute: Oria ibai osoa urteetan kutsatu duten lantegietatik isuritako bitsez jositako uren argazkiak izan dira ikusgarrienak, Billabonatik igarotzean batez ere. Hiriguneak berak urte horietan izan zuen aldaketa agertu da. Ekintza positiboen artean Otxabiko harrobiaren berreskurapena, Etxandoko berdegunea aipatu dituzte. Panel horretan berriro ere argi adierazten dute Oria ibaian egin nahi dituzten bideratze lanek eragindako kezkak; lanak uste bezala burutzen badituzte, er-tzeetako landaretza guztia desagertuko dela pentsatzen baitute, eta bestetik, erakundeen egitasmo zehatzen berri ez izatea ere kezkarritzat jo dute.

“Ohartu al zara?”

“Noizbait ohartu al zara?” dio beste panel batek, izan ere ohartzeko moduko irudiak ikus daitezke bertan. Batetik, hirigunean aurkitutako zenbaita kalte isladatu dituzte argazkietan: autobien zarataren eragina, ibaiko hondakinak, kaleko zaborrak eta abar. Naturan aurkitu dituzten artean aipatzekoak dira mendiak eusteko hormigoiz eginiko hormak, elektra hariteriak, ehiztariak mendian utzitako zaborrak, baserritarrek egiten dituzten txapazko hesi desagokiak, eta guztien artean bereziki Leitzarango autobien lanen eragina. “Nahiz eta horiek guztiak oso gauza nabariak izan, jendeari dei bat egin nahi diogu, kontzientzia har dezan” esan digute erakusketaren egileek.



Otxabiko harrobiaren eraldaketa

“Eman dezatela herritarrek bere iritzia”


Azkenengo panelean Udalak onartutako hirigintza arauen arabera etorkizun hurbilean herria nolakoa izango den erakutsi nahi izan dute. Erakusteaz gain ordea, herritarrek gonbidatu nahi izan dituzte egitasmo horiei guztiei buruz euren iritzia eman dezaten.

Halaber, aipatzekoa da zaborra birziklatuz Flemming ikastetxeko ikasleek egin dituzten jostailuak. Erakusketan ondo baino hobeto ikusi ahal izan da zabor asko probetxuzkoa izan ohi dela.

Ikastaro amaiera

Erakusketa hau urtebetez Ingurugiro eskolan aritu diren ikasleen amaiera lanetako bat izan da. Erakusketaz gain harrera ezin-obeia izan duen sendabelarren tailerra antolatu dute, kontsumo eta erreziklapen tailerra, zaborra eta bere tratamenduari buruzko mahaingurua eta Oraia ibaia eta dauden egitasmoei buruzko mahaingurua. Dena den, Luis Astolak eskolako zuzendariak ez ditu aipatu gabe utzi nahi izan Amasamediko basoa berreskuratzeko oihan tailerreko ikasleek egiten ari diren lanak, eta Flemming eskolako ikasleekin egin dituzten ingurugiro heziketari buruzko praktikak, hala nola aldiro argitaratzen duten eta ikasle horien lanak zabaltzeko balio duen “Zipristina” aldizkaria. Honez gero bi zenbakiak ikusi dute argia eta gure inguruenari buruzko erreportaia eta kronika interesgarriak eman dituzte ezagutzera.

Urtebete ikasten aritu ondoren gazte hauek elkarte bat sortzeko ahalegina ere egin dute. “Zipristina” da elkartearen izena, eta era profesionalean ingurugiro heziketari buruzko laguntza jaso nahi duen edonork izango du hemendik aurrera aukera 69 37 33 telefonora deituz.



Oria ibaia lantegietako aparrez gainezka

Billabona

Drogomenpekotasunen gaiak bildu ditu

“Zuk ere zerbait egin dezakezu” izeneko liburuska argitaratu berri dute

1993. urte hasieran sortu zen herrian drogomenpekotasunen alorrean lan egiteko asmoarekin herriko talde eta erakundez osatutako elkarteak. Bi urte hauetan lanean aritu ondoren herrian aurkezpena egin nahi izan dute, izan ere, orain arte “Billabona eta drogomenpekotasunaren gaiak beti izan du islada negatiboa komunikabideetan” diote taldekideek, “eta aurkezpenari esker arlo horretan egiten ari diren ekintza positiboak ere eman nahi ditugu ezagutzera”. Malkar taldeak, Apurka taldeak, Jesusen Bihotza ikastolako irakasleen ordezkariak, Flemming ikastetxe-ko irakasle eta gurasoen elkarteak, parrokiak, Udalak, AGIPADeko prebentzio taldeak eta Behar-Zana taldeak osatzen dute elkarteak. Herriarren sentsibilitateari batu zaion Udalaren konpromezua eta partehartze zuzenaren ondorio dira elkarteak eta bertako ekimenak. Egindako lanen artean “Zuk ere zerbait egin dezakezu” izeneko liburuska aipatu beharra dago. Aurrerantz begira dauzkaten asmo garrantzitsuenen artean berriz, Guraso Eskolaren sorrera.

AIURRI: Billabonan zergatik dago drogomenpekotasunarekiko beste herri batzuetan hain nabarmena ez den sentsibilitatea?

TALDEKIDEAK: Guk dakigunez, hemen ez dago beste herri batzuetan baino drogomenpeko gehiago, eta drogen, bereziki heroinaren trafikoa antzeko tamainako herrien parekoa da. Baina, normalean, beste herri

batzuetan herriko bazterreko gunee-
tan gertatzen den bitartean, Billa-
bonan trafikoa erdi-erdian dago, he-
rriko plazan, eta oso irudi gogorrek
ikusteko aukera izan dugu.

A: Zeintzuk dira taldearen hel-
buruak?

T: Lehenengo eta behin, drogo-
menpekotasunen prebentzioa guz-
tion ardura dela ikustarazi behar
diegu herritarrei.

Horrezaz gain, alkoholaren arazoaz bereziki, sentsibilizatu nahi ditugu gazteak eta helduak, era berean alkoholaren kontsumoari buruzko eztabaida dinamika sortuz. Herriarren partehartzea sustatu nahi dugu elkarteak eta ekintzak bultzatuz. Taldeko

gazteekin komunikaziorako bideak jartzea ere garrantzitsua iruditzen zaigu, eta azkenik, hau guztia posible izan dadin, denboraldi zehatz batean gaia bultzatzeko konpromezu politikoa lortu nahi dugu Udalaren eta beste erakundeen aldetik.

“Alkoholaren arazoaz bereziki sentsibilizatu nahi ditugu gazteak eta helduak”

A: Ze ekintza egin dituzue orain arte?

T: Hitzaldi ugari egin ditugu. Bestalde iaz uztailearen 15ean herriko tabernariei idatzi bat bidali genien taldea egiten ari zen lanaren berri emanez eta hitzaldi informatibo batera gonbidatuz. Hain zuzen ere lanik garrantzitsuena liburu batean isladatu eta eman dugu argitara, “Zuk ere zerbait egin dezakezu” izeneko liburuska.

A: Zer aurki daiteke argitalpen horretan?

T: Liburua urtebeteko lanaren emaitza izan da. Garrantzitsua iruditu zaigu 1988. urtean Eusko Jaur-laritzak drogomenpekotasunari buruz onartutako legea era xebe eta erabilgarrian ezagutzera ematea, izan ere zenbait egitasmo aurrera eramateko aukera ematen duen oinarri legala da. Lehenengoz eta behin legean bertan jasota dauden pasarterik interesgarrienak bildu ditugu, testua landu dugu eta me-



Alkoholari buruzko hitzaldia

“ZUK ERE ZERBAIT EGIN DEZAKEZU”

LEGEAK, BESTEAK BESTE IDEA HAUEK JASOTZEN DITU:

- Tabakoa, edari alkoholodunak eta zenbait botika ere drogak dira.
- Drogazaletasunari aurrea hartzerik badago, baina horretarako denok eskuhartu behar dugu.
- Drogazaletasunari aurrea hartzeko ez da gauza berririk asmatu edo egin behar, bakoitzak gizartean duen egin-kizuna ondo bete baik: amarena, auzokoarena, lagunarena...
- Ez dago drogazaletasunaren arrazoi edo zergati bakarra, eta kontuan hartu behar ditugu bai drogarekin zuzenean loturiko eragileak (eskaintza, kontsumoa...), bai zeharkako faktore eragileak (eskolako porrota, etorkizunerako ilusiorik eza, gizarte eta kultur ekipamendurik eza, hiri ingurune itogarria...).

LEGEAK EZARTZEN DITUEN HAINBAT DEBEKU:

- Azoketan, erakustaldietan eta antzeko aktibitateetan, alkoholaren eta tabakoaren publizitatea aparteko leku berezietan egingo da eta 18 urtetik beherakoek galerazita izango dute bertan sartzea.
- Debekatuta egongo da 18 urtetik beherakoek edari alkoholodunak saltzea edo ematea.
- Debekatuta dago 18 urtetik beherakoek tabakoa edo erretzeko deigarri izan litezkeen imitazioak saltzea edo ematea.
- Debekatuta dago erretzea garraiobide kolektiboetan, behar bezalako aireztapena ez duten areto publiko txikitetan, osasun zentroetan, ikastetxeetan, jakiak egiten, prestatzen edo saltzen diren lokaletan.

NIK ZER EGIN DEZAKET ?

- Legezkoak diren drogak kontsumitzeak ere arazoak ekar ditzakeela jakin.
- Drogak dauden ingurune batean bizitzen ikasteko gai izan.
- Ingurukoengan (familian, lagunengan, artean, lantokian) eragin, beraiek ere jarrera aktiboa eta kritikoa izan dezaten eta osasuntsuago bizi daitezen.
- Gainera asko lagundu dezakezu, legez kanpoko drogen trafikoa eta 18 urtetik beherakoek egindako alkohol eta tabako salmenten aurrean zure Udaletxean denuntzia jarritz.



Talde ezberdinez sortutako elkarte

zua zabaldu. Bestalde, izenburuak argi adierazten du non dagoen liburuaren mamia, alegia herritar guztiok esparru honetan partehartze zuzena izan behar dugula adierazi nahi izan dugu.

Guraso Eskola sortu nahi dugu

A: Lan hori egin eta gero, ze asmo daukazue epe laburrean?

T: Guraso Eskola sortu nahian gabiltza. Parrokian orain urte batzuk geroztik ari da talde bat lanean, baina ikastetxe ezberdinetako gurasoak bilduko dituen Eskola nahi dugu. Izan ere, konturatu gara drogomenpekotasuna beste hainbat arazoren ondorioa dela, eta familian daukate gebienek jatorria. Horregatik, drogomenpekotasuna baino osasunerako bezkuntza zabala zabaldu nahi dugu bertan, eta batez ere adingabekoen babesaren gaia azpimarratu.

A: APURKA taldea ez al da izan mugimendu honen aintzindari eta motorra?

T: Bai, balaxe da, izan ere, drogen gaiaz soil-soilik arduratutako taldea izan da hasieratik, gainerako taldeek beste arlo batzuetan ere egin dute lan. Orain dela lau urte sor-

tu zen taldea, herrian antolatu genuen-eta medio guztietan oihartzuna izan zuen manifestazio ezagunaren ondoren. Gure lan arloak hiru izan dira: prebentzioa, rehabilitazioa eta trafikoa. Prebentzio mailan egin dugu lanik handiena, baita oraingo elkarte zabal honetan ere. Rehabilitazioari dagokionez informazio zuzena eman obi diegu drogomenpekoen familia eta interesatuei, hala nola laguntza. Trafikoaren gaia askoz ere zailagoa da, ez baita Billabonara mugatzen.

APURKA izan da eragilerik nagusiena

A: Udalak ze partehartze izan du lan honetan guztian?

T: Udalak lehenengo unetik hartu du elkartearekiko eta gaiarekiko konpromezua, eta partehartze zuzena dauka, dirulaguntzak eskainiz, hala nola, Ongizate Zerbitzua egokituz. Gai honi buruz esan behar da orain arte arlo honetan laguntzaile sozial bakarra izan dugula, baina orain badugu beste bat eta baita administrari bat. Talde teknikoaren indartzearen helburua dauzkagun egitasmoa aurrera ateratzea da.

Emakumea baserrian

“Gaur egun emakumeak lehen baino zama eta ardura handiagoa dauka baserrian”

Joxepa Otegi eta Ana Mari Jauregik ondo baino hobeto daukate Asteasun emakume langile ospea irabazita. Goizean goiz hasi eta ilundu arte egiten dute baserrian eta etxean lan. Agiñazpin, Ana Marin bizilekuan eta Joxeparen jaiotetxean elkartu gara emakumezkoek baserrian ze bizimodu egiten duten ezagutzeko. Izeba-ilobak askotan egiten dute baserrian elkarrekin lan: Ana Marik baserria zaindu, etxea zuzendu eta bere bi seme-alabak hazi beharra dauka. Joxepa orain artean ere nahikoa eta gehiegi lan egindakoa dugu, baina sasoirik ez zaio falta eta bere etxean ez denean, Agiñazpin aritu ohi da baratzen edo azpiak ateratzen, edota bestela auzoko beste baserriren batean laguntzen. Bi belaunaldi elkartu ditugu, oraingo eta lehengo kontuak ezagutzeko, emakumearentzat ezertan aldatu diren ezagutzeko.



Arbitan

Ana Marik gaur egun baserriko lan gehienak egiten ditu. Senarrak kanpoan egiten du lan eta bera da etxeaz gain baratza, soroa, eta azienda bere kargu dauzkana. Enkarguak egitera irten ohi da etxetik, eta igandetan kafea hartzera, gainerakoan baserriari lotuta dago. Agiñazpi ez dago hirigunetik batere urrun, eta horrek baserriko bizimoduak askotan eragin ohi duen isolamenduz libratu du.

Joxepa alderantziz kalean bizi da “Mataderan” edota Enekorenea etxean urte batzuk egin eta gero. Agiñazpira lotu-lotuta dago, hala ere, eta ez dago bertara bisita egiten ez duen egunik. Dena den, Joxeparen bisitaldiak ez dira nolanhikoak izaten, izan ere baserrira joaten denean lanera joan ohi da, “gu guztion aurretik ibiltzen da bera” esan digu Ana Marik. Bere lanari “denbora pasa” esaten dio, izan ere, Joxepak zerbait faltan botatzen badu, garai batean zeukan eginbehar eta lan hura zen. Baserrian bizi zenean etxeko lan gehienak egiten zituen, “hamahiru senide ginen” esan digu, baratzen, atxu-

rean eta laian ibiltzeaz gain. Matarara joan zenean, oraindik ere ba- zeukan aziendarik eta haren kargu zegoen, Donostia eta Tolosako azoketara ere joaten zen autobusean zestoa hartuta. Orduan Joxeparen senarrak lantegian egiten zuen lan. Udaletxea eta eskolak ere garbitzen ibilitakoa da. Gaur egun, alargundu zenetik, ez dauka aziendarik, “ondo- ezik egonez gero, auzokoei laguntza eske ibili beharra neukan, endre- datzen, eta kendu egin nituen”, bai- na besteen etxeetan laguntzaile esti- matua da.

Lehen eta orain

Emakumearen lehengo eta orain- go bizimoduaren arteko alderik ba ote dagoen galdetu diegu, eta bie- iruditu zaie, emakumeak gaur egun lehen baino zama eta ardura gehi- go daukala baserrian, “izan ere, bera baita baserrian gehien egoten dena”. Hala ere, etxeko lanak eta haurrak haztea berezko lanak izaten jarrait- zen dute, alegia etxeari eta lurrari lo- tuta jarraitzen du emakumeak. Hori dela eta, Euskal Herrian oso aipatua izan den ohiturazko emakumearen

aginpidearen mitoaz hitz egin dugu emakumeok, eta beraiek dakitela behintzat, emakumearen erabaki eta ahalmenak sukaldara mugatu izan dira gehinetan. Gizonak agindu izan du gainerakoan.

“Garbigailua etxeko neskame berria”

Dena den ez dago ukatzerik au- rrerakuntza teknikoek laguntza han- dia izan direla emakume hauentzat. “Hortxe dugu guk orain neskamea” esan digu Joxepak garbigailuari be- gira, “garai batean errekan garbitu behar izaten genuen arropa eta etxean asko ginen”. Kotxea berriz, garbigailua bera baino sinesgaitzagoa iruditzen zaio Joxepari: “Ez nukeen sinestuko orain emakumeak kotxean ikusten ditudan bezala ikusi behar nituenik”. Gaur egun mendira joate- ko ere lanik ez omen da dagoeneko hartzen kotxean joanda. Biek esan digute, zalantzarik gabe, kotxeak ba- serriko isolamendutik atera duela

emakumea. Dena den, oraindik ere baserriko emakumeak ez du kotxea arratsalde pasa nonbaitera joateko erabiltzen, eginbeharrak egiteko baik. Bestalde, telebista ere berrikuntza handia izan da Joxeparentzat: gaur egun tarteka hari begira ere egon ohi da, izan ere ez dauka lehen puntu egiteko edo irakurtzeko zeukan zaletasunik. Lehengo eta oraingo bizimodua alderatzen jarraitu dugu eta umeak mundura ekartzeko ere alde handia dagoela gogoratu digu Joxepak: garai batean denak etxean izaten ziren, bata bestearen segidan normalean, dozena bat seme-alaba izatea gauza aurrunt-arunta zen, eta baita emakumea ahurdun azken unera artean soroan lan egiten egotea: "Behin umeak koskortzen hasten zirenean ama etxera itzultzen zen, eta seme-alabak ibiltzen ziren basoan eta soroan". Alegia, emakumeren bat beti izan ohi zen etxean: ama, amona, alaba zaharrena edo auzoko emakumeren bat.

Soldata

Emakumezkoek etxean eta baserrian batez ere egiten duten lanagatik soldatarik mereziko luketen galdetu diegu. Joxepak ez du erantzuna birritan pentsatu: "Emanez gero, gustora hartuko genuke, baina hori ere alferrik izango da". Biek esan digute baserriko bizimodua gogorra dela, hala ere Joxepak gusto-gustokoa du. Orain dela urte batzuk asko kostatu zitzaion ia ondoan zeukan herriko etxera joatea. Eta gogorra izateaz gain, baserri txikietan bizimodua aurrera ateratzea zaila dela aipatu digute. Horregatik Joxepa bera da gazteak ikasketaren batzuk egin eta beste lanbideren bat bilatzearen aldekoa, "gu inora joateko ere ez geunden" gogoratu digu Joxepak bere

ikasketak zertara mugatu ziren kontatu bitartean.

"Eta lanerako sasoia edota senarra falta izandakoan, zer?"

Jaso beharko lukeen edo ez lukeen soldataz gain, baserriko emakumea alargundutakoan normalean, ahaidetik ez badu, geratzen den egoera ekonomiko penagarriari buruz ere hitz egin dugu. "Garai batean lanerako sasoia bukatzean ez senarrari ez emakumeari ez zitzaion ezer geratzen. Gaur egun gizona lantegian lan egindakoa izanez gero, haren pentsioa geratzen zaio normalean, eta bestela hori ere ez. Senideak izan ohi dira horrelakoetan sostengu bakarra.

Baserrian jubilatzeke garaia emakumeari noiz iristen zaion galdetu eta galderak berak irribarre egina-razi die bi emakumeei. Egunak nola edo hala betetzea bihurtu da gaur egun Joxeparen kezka handienetako bat. Horri aurre egiteko lagunen batzuekin elkartu eta arratsalde pasa inora joatea bururatzeko ez al zaion galdetu diogunean are irribarre zabalagoa egin digu, "eta nik ez dut horretarako balio" esanez moztu du hizpidea. Udaletxetik ere maiz deitzen omen diote antolatutako zenbait



ekintzetara gonbidatuz, baina ez horixe ez, etxeko giro epela ez luke Joxepak beste ezergatik aldatuko. Azkenengoz aldiz Billabonara joan zenean zeharo harrিতuta itzuli omen zen etxera hango kaleetako aldaketak ikusita. Donostira askotan joandakoa da bestalde; zaldiairen gainean ume koskorra hartuta joaten zen gazetetan. Eta gaur egun ere batzuetan joaten da autobusa hartuta ahizpa bisitazera, baina orduan ere agudo ematen du etxera buelta. "Non etxean baino hobeto?" galdetu digu, eta guk arrazoia eman diogu. Izan ere Joxepari mundu honetan gutxien gustatzen zaion gauza bazterrak endredatzea da.

ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAK

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!

KALE BERRIA 22
TELEFONOA 59 44 76 - 30 01 67 **20140 ANDOAIN**



**AUTOEN MEKANIKA OROKORRA
ZABALAGA TAILERRAK**

Ama Kandida Etorbidea. DENAC Poligonoa, 203. Pabeloia
Telefonoa 30 01 69 **ANDOAIN**

Andoain

Zeramika tailerra

Eduardo Arreseygor "Nork bere sormena lan dezan uzten ditut lanean"

Orain dela bost urte ireki zituen bere ateak zeramika tailerrak. Ikasturtearekin batera hasi ohi dira lanean ikasleak, hala ere Eduardo Arreseygor bertako irakasleari ikastaroei buruz hitz egitea baino, tailerraz hitz egitea gustatzen zaio, alegia tailerra lana egiteko dela azpimarratu digu. Behin oinarritzko teknika ikasi eta gero, norberaren lana izan ohi da sormena eta buztinaren lanketaren teknika garatzea. Gaur egun dozena bat andoaindar ari dira tailerrean lanean.



Lanerako giro atsedena dago tailerrean

Era guztietako jendea hurbiltzen da tailerrera: askok buztina inoiz ikutu gabe, eta zeramika zer den jakin nahian hurbiltzen dira, beste batzuk lehen ere ibiliak dira zeramika kontuetan eta lan egitera joaten dira bertara. Arlo artistikoa bereziki landu nahi dutenek ere bertara jotzen dute, eta azkenik, zeramika etorkizuneko lanbidea eta bizibidea izan daiteke-elakoan joaten direnak ere badira.

Eduardok azaldu digunez zeramika aspaldiko artisau teknika da. Antzinan gauza erabilgarriak egiteko erabili ohi zuten zeramika: ontziak, platerak eta abar. Gaur egun zeramika gehiago hurbiltzen da artearen eta estetikaren mundura. Izan ere sukaldeko buztinezko lapikoez gain,

ezer gutxirako erabiltzen da zeramika etxean, apaingarri batzuetan ez bada.

**Lehen gauza
erabilgarriak,
gaur egun artea
eta estetika
gaiak**

Bi eratara landu daiteke zeramika: eskuz edo tornoa erabiliz. Dena den, era batean edo bestean buztin bustia landu ondoren, buztina lehortzen utzi behar da. Labean sartzen da on-

doren. Eta handik atera eta gero apaindu egiten da pintura bereziak erabiliz. Aldez aurretik garrantzitsua da margoekin froga bat baino gehiago egitea, izan ere, hasieran erabiltzen diren margoak eta behin labetik atera ondorengoek ez dute tonu berbera. Beraz, margoz apainduta bigarren aldiz sartzen da zeramika pieza labean.

Sormena

Jendeari zeramika orokorrean gustatzen zaiola uste du, apaingarri gisa, batez ere. Hala ere, Eduardoren ustez garrantzitsuena egilea bera da eta bere sormena. Are gehiago esku

**Joxe Mari
ITURRALDE**

ZURGINDEGIA

Formika lanak, sarrerako eta barruko ate mota guztiak eta edozein zurgintza lan.

ADUNA - ☎ 69 20 81

**Orremendi
Kirolak**

AUKERA ZABALA
KIROL ARTIKULUETAN



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN

lanketa eta sormena hain gutxi lantzen diren garai haue-
tan. Horregatik azpimarratu digu behin oinarrizko tek-
nika ikasi eta gero norberari uzten zaiola lanean, beti
ere aholkuak eman behar zaizkionean emanez. Bes-
talde buztinarekin lan egitea oso jardun atsegina dela
erakutsi digu Eduardok, asko lasaitzen omen du.

Azkenik, Eduardok uste du tailerra herrian izanda,
gehiago aprobetxatu beharko litzatekeela, izan ere gu-
txieneko baldintzak behintzat badauzka ederki eta giro
onean lan egiteko.



Nor bere sormena lantzen du

Eduardo Arreseygor

Hogei ur-
tez geroztik
dago Euskal
Herrian, Ma-
drid, Bartze-
loan eta beste
h i r i b u r u
batzuetan ibili
ondoren Ar-
gentinan jaiot-
tako Eduardo.
Argentinako
La Plantan
ekin zien Arte
Ederratako
ikasketei, pin-



tura arloan. Egoera politikoak behartuta alde egin zuen jaioteritik. Eta Euskal Herrian duela hilabete batzuk amaitu ditu ikasketa akademikoak. Izan ere Argenti-
nan egiteke utzi zuen tesina duela gutxi aurkeztu du Euskal Herriko Unibertsitatean.

Kolorearen espresio plastikoak haurraren duen eragina izan da tesinaren ikergaia. Haurrak koloreare-
kiko duen arrazonomenduari, ezagutzaren eta espresioaren bilakaera aztertzen aritu da, eskoletan bertan haurrekin esperientziak eginez. Hiru urteko lanaren emaitza guri laburbiltzea ezinezkoa izan zaio. Hala ere, ondorioen artean alde psikologikoa nahiz afektiboa az-
tertu duela adierazi digu.

Ikasketa akademikoak bukatu arren, Eduardok iker-
tzen jarraitzeko asmoa dauka. Margoak eta eskulutura ere ez ditu zeharo baztertu nahi eta aurki lanean hasi-
ko dela aurreratu digu. Magolaritzan nahiz eskultu-
retan zeramikarekin lan egiten jarraituko du.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



-
-
-
-

kutxa fundazioa

fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Billabona

Akonkaguan zehar

40 egun ondoren itzuli da Akonkaguara joandako Billabonako laukotea

Ez dugu ezer berririk asmatuko Euskal Herrian mendizaletasun nabaria dagoela esaten badugu.

Modu horretan askotxo dira inguruko mendietaz gozaten dutenak. Inguruko mendiez gain, aukerarik dagoenean kanpora joaten direnak ere badira. Urko Gorostidi, Juantxo Labaien, Ion Iñaki Ormazabal eta Karlos Galarraga hilabete pasatxo egon dira Hego Ameriketara Akonkagua aldean ibili ondoren. Patagonia iparraldera hurbildu dira, eta nola ez, badute zer kontatu.



Akonkaguako kanpo baseko bidean

Akonkaguara joateko ideia Alpeetan zeuden bitartean bururatu omen zitzairen. "Mendiaren altuerak baino -8.960 metro dauzka- Hego Ameriketara egoteak izugarri erakartzen gintuen" diote Urko eta Ion Iñakik, "honez gain, aurreko urtean Billabonako beste talde bat egon zen bertan, eta horrek erraztasun handiak ematen zizkigun bidaiara antolatzeke garaian".

Nahiko argi zeukatzen beste gauza bat bidaiara "aprobetxatu egin behar" zutela, alegia, itsasoa zeharkatu ondoren ez zutela Akonkagua bakarrik ikusiko. Boliviara joateko aukera zokoratu egin behar izan zuten "garai txarra zelako eta ia distantzia berdinera geratzen zitzaigun Patagoniara joatea erabaki genuen".

Egin behar zutena erabakita, bidaiaren antolaketa lanetan murgildu ziren: beharrezkoa zuten dirua lortzeko kamiseta eta rifak egin zituzten, "gutxi gorabehera kamisetekin bidaiara ordaintzeko adina atera nahi genuen, eta rifekin herriz, kanping denda erosteko". Azken momentuko agurrak zirela eta, hegazkina galtzeko egon baziren ere, inongo arazorik gabe iritsi ziren Akonkagua ingurura.

Eguraldi txarra eta alemaniarrek

Akonkaguarako igoera klimatizazioz gabe egiteko oso gogorra iruditzen zitzaizela eta, Vallecitos-Cordon del Plata izeneko lekuan astebete eman zuten altura egiten: "Kontuan hartu behar da Akonkaguako 6.000 metroak ez direla beste edonongo 6.000 metro bezala. Teknika atletik zailtasun handiegirik ez badu ere, presioaren "jokua" nahiko berezia da, altuerako gaitza eta biriketako edema asko izaten dira". Ibilaldiaren gora-beherak kontatzen jarraitzen dute: "Vallecitosen oso eguraldi ona izan bageneuen ere, Akonkaguan kontrakoa gertatu zitzaigun" dio Juantxok, "lehenengo egunetik oso eguraldi txarra zegoen. Gainera traste guztiak basera (-4.300 metro) igoz ia astebete eman genuen.

Alemaniarren erreskatean

Kanpo basean aurkitu zituztenek bikote alemaniar baten berri eman zieten: "5.800 metrora dagoen biga-

ren kanpamenduan bost egun zeramatzatela esan ziguten. Eguraldia hobetu zain geratuko ziren, ziur aski, baina bost egun haiez gero, gasik gabe egongo ziren...". Azkenean, materiala jasotzera igo zen italiar batek jaitsi zuen alemanierretako bat. Bere laguna lehenengo eta bigarren kanpamenduen artean hor nonbait zegoela esaten ziren, nahiz eta ziur ez jakin non zegoen. Egun dexente igaroz zituzten egoera horretan, zer egin ez zekitela, alemaniarren egoeraren berri ez jakiteak beldurtzen zituelarik: "Parkeko medikua beste mediku batekin joan zen presioa jaisteko balio duen kamara hiperborikoa zeramatzela". Hurrengo berria irratiz iritsi zitzairen: "Medikuek alemaniarra lurrean etzanda aurkitu zuten, bigarren kanpamendutik jaisten ari zela. Oso egoera txarrean zegoen..., 'ordu erdi geroago eta hilik legoke' zioten medikuek".

Denda txiki bat erabiliz medikuek lehenengo kanpamenduan igaroz zuten gaua alemaniarrekin batera, "gauean kanpo basean zegoen lagun bat igo zen lehenengo kanpamendu-

ra. Gu lo geunden jaitsi zirenerako. Alemaniarrak izozturak zituela eta bere kabuz jaitsi ezin zuela esanez esnatu gintuen.

"Trineo eta sokez lagunduta jaitsi genuen alemaniarra. Hankak eta eskuak izoztuta zeuzkan. Gero jakin izan

te. Arazo handirik gabe iritsi ziren. bada. Berlin-era, 5.800 metrora da goen bigarren kanpamendura. Elurrean zehar eguraldi txarra zegoela igaro genuen. Baina handik aurrera haizea izugarritzkoa zen. Haizeak elurra altxatzen zuen, eta makurtuta ibi-

behar izan genituen. Autobusa zaharra zen. Denetatik zeramaten bertan: txitoak, algak... Dena den, bertako jendeak emandako tratua ez dira kexatzen, ezta gutxiago ere.

"Hozberoak izugarritzko aldaketak egiten ditu"

Handik, eta etxera itzuli aurretik, Villarica izeneko sumendia ere bisitatu zen, "gure asmoa sumendiaren hormetan *trekking* egitea bazen ere, ez genuen eguraldia lagun, eta sumendia igotzea erabaki genuen. Eta hala ere, ez zitzaigun hain gaizki aterra" diote, "ez handik bi egunetara harri koskorak botatzen hasi zen sumendia, eta igoyerak debekatu zituzten".

Hurrengo bidaia

Oraingoz inguruetako mendietan ibiltzeko gogoa dutela diote eta ez di-rela beste bidaia batean pentsatzen hasi, "dena den, dirua aurrezten hasi beharko dugu". Gauzak honela, ez dute AIURRIK emandako aukera galdu nahi izan eta eskerrak eman nahi izan dizkigute, baita "Karlis eta Aralar kirolei", besteak beste, eta nola ez kamisetak erosi dituztenei.

Agosti Garmendia



Vallecitos, Cordon del Plata (5.800m)

genuen hanka bat belaunetik behera eta beste oineko behatz batzuk ere moztu egin behar izan zizkiotela".

Igoera

Egin beharrekoak egin ondoren Akonkaguaren gailurrera igotzeko saioari ekin zioten: "Prebisioak ez ziren oso onak. Egun t'erdi ona egingo zuela eta beta aprobetxatu nahi izan genuen" diote. "Kanpo basetik bigarren kanpamenduraino igo nahi genuen zuzenean, baina lehenengo kanpamendura iritsi bezain laster, hasi zen elurra egiten". Eguraldia ikusirik goizaldera arte itxarotea erabaki zuten, eguraldiak hohera egingo zuelakoan. "Izugarritzko hotza egiten zuen" dio Juantxok, "35º zero azpitik egongo ginen. Joan aurretik esan ziguten, bai: 'Mukiak ere izoztuko zaizkizue', eta halaxe izan zen mukiak ere izoztu egin zitzaizkigun".

Ezin izan zuten gailurreraino igo

Goizeko hiruak aldera altxatu ziren "nahiko eguraldi onarekin" dio-

li behar genuen".

Horrela ba, itzultzea erabaki zuten, "hala ere, eguraldi txarra zela eta, jaistean ere nahikoa arazo izan genituen, haizeak elurretan egindako arrastoak ezabatzen baitzituen.

Gailurretik hain gertu egonda, itzuli behar izateak tripako minik ez al zien eman galdetu diegunean, honako hau erantzun digute: "Tripako mina ez zen hainbestekoa izan. Argi zegoen mendiak ez zuela nahi gu igotzerik. Kontuan hartu behar da bazirela 15-20 egun azkenekoz italiar bat igo zela, eguraldi onarekin eta bakerotan igo zen tipoa". Gauzak horrela, eta eguraldi txarrak jarraitzen zuela ikusirik, trasteak jaso eta Patagonia aldera jo zuten.

Egoeraren aldaketa

Patagoniako lurretan guztiz aldatzen da eguraldia: "Astebetean -35ºtik 35ºra igaro ginen". Puerto Montera iritsi ziren Hego Amerikako irlarik handiena ezagutzeko asmoz. "Hemen autobusa hartu behar izaten da, geroago *ferry* batean eramán zituzten. "Autobusarena izugarria zen: kilometro gutxi batzuk egiteko orduak

MENDI IBILALDIAK

ANDOAINGO EUSKALDUNA MENDIZALE

ELKARTEAK ANTOLATUTA:

Otsailak 19: Lizarraga-San Adrian-Zunbeltz-Iranzuko monastegia. Sei orduko ibilaldia.

BILABONAKO AIZKARDI MENDIZALE

ELKARTEAK ANTOLATUTA:

Otsailak 18-19: Asteburua eskia-tzera

ASTEASU:

Urtarrilak 29: Aiztondo ezagutzen. 19 kilometro. Bost orduko ibilaldia. Irteera: Goizeko zortzietan herriko enparantzatik.

Otsailak 12: Asteasu-Uzturre-Loatzo-Asteasu. Sei orduko ibilaldia. Irteera: Goizeko zortzietan herriko enparantzatik.

Zaharrak berri

Asteasu

Santa Ageda; usadioa baino gehiago

Aurten bildutako dirua Joseba Elizegiren familiarentzat izango da

“Santa Ageda bezpera degu, Euskal Herriko eguna...”, otsailak laueko iluntzean gure herrietan entzuten dugun kantua da berau. Santa Ageda egunaren bezperako usadioa baita makilak hartu eta herrian zehar Euskal Herriko patroia gorai patuz kantari ibiltzea eztarriak urratu arte. Asteasura jo dugu usadio horren nondik norakoak eta, gehienbat, duen gaurkotasuna eta jarraipena jakiteko asmoz.



Urtero berritutako ohitura zaharra

Aiztondo elkarteko Jeronimorekin egon gara solasean, elkarteak urteak baitaramatza ospakizunaren presakuntza lanak egin eta ospatzen: “Duela hamabost urte hasi ginen, diru beharrez gehienbat”. Izan ere, Errege kabalgata prestatzeko dirua biltzen zuten Santa Ageda bezperan, era beran usadioarekin jarraituz. Hemezortzi lagun inguru hasi ziren eta egun, berrogei lagun ateratzen dira kantura.

“Kantu tradizionalak kantatzen ditugu: ‘Dios te salve Maria...’ eta horrelakoak. Gainera koplak abesteaz gain, bertsolariak ere ibiltzen dira bertsoetan”, dio Jeronimok Asteasun usadioak daukan berezitasuna azalduz. Bertsolari ezagun bat ekartzen dute urtero: “Azken urteotan Eguskitze ekarri dugu, baina Murua eta Txo-

min Garmendiak ere parte hartu izan dute”, gaineratu digu, hainbat urtetan Martxiel Lizarra bertsolaria ibili dela gogoratuz. Soinujolea berriz, Tapia asteasuarra da, azkenekotan semea ibili bada ere, Tapia zenak askotan parte hartu zuen ospakizunean.

Beharrean daudenei

Egun kabalgata Udalak antolatzen du, eta ondorioz kantuan eskuratzen duten dirua gabezia dauden erakunde edota pertsonen ematen diete: “Iaz Sos Balkanes erakundeari eta Somaliakoei eman genien dirua eta aurten Joseba Elizegiren sendiari ematea iruditu zaigu bidezkoena” komentatu digu Jeronimok, ospakizunaren helburua usadioari jarraipena ematea baino gehiago dela azpimarratuz.

Ez dute etsaerik egiten eta janzkera betikoa dela adierazi digu, baina hori bai, hemezortzi urtetik gorakoek soilik parte har dezakete, “ahalik eta txukunen egitearren”. Bestalde, kantuan ibiltzen den talde bat antolatu du Amnistiaren Aldeko Batzordeak, ondorioz Asteasun Santa Agedako ohiturak duen bultzada ikus daiteke.

Beraz, ospakizunean parte hartu nahi izanez gero, Aiztondo elkartera azaldu sei terdietan eta herrian zehar eta Elizmendi auzoan kantari ibili ondoren afaria egingo da Aiztondo elkartean. “Santa Ageda bezpera behar bezela bukatu eta hurrengo eguna ongi hasteko” Jeronimoren hitzetan.

Ainhoa Oartzabal

Zizurkil

Marie Brizardek iaz bete zuen mende laurdena Zizurkilen

“Jatorrizko lehengaietan dago geure anis eta likoreen sekretua”

“Marie Brizard” izenak ez du aurkezpen berezirik behar; alkohol tantarik inoiz edan ez duenak ere izen bereko anis botilen aipamena behin baino gehiagotan entzungo zuen. Bestalde, Zizurkilgo Bulandegi auzoan barrena edo N-I errepi-dean zehar igaro eta lantegiko erroto erraldoiari erreparatu ez dionik ez da, ziur aski, egongo. Jatorri frantsesa, Bordelekoa hain zuzen ere, duen lantegia orain 26 urte etorri zen Zizurkilera Pasaiatik. Gaur egun lan prozesu tradizionala baztertu gabe puntako teknologiaz baliaturik egiten dute lan. Kon-tsumoari dagokionez orain dela hamar urte Euskal Herria zen penintsulan kontsumo handien egiten zuen herria, kontsumo osoaren laurdena hemen gelditzen zen, orain berriz, %14era jaitsi da.

Zizurkilgo lantegian etxe honetako produktuetan ezagunena den aniseteaz gain, zapore ezberdinak dauzkaten likoreak eta patxarana ere ekoizten dute. Guztira sei milioi erdi anisete, milioi erdi likore eta gainerakoa patxarana. Aniseteari dagokionez anisarekin duen aldea azaldu digu Luis Laburu lantegiko zuzendariak: aniseteak alkohol gutxiago dauka, 25 gradu, eta azukre gehiago, kilo erdi litroko. Anisak alkohol gehiago dauka eta azukre gutxiago.


Vicente Aparicio andoaindarrak, lantegiko tekniko buru eta aholkulariak erakutsi digu lantegia. Alde batean duela 3.000 urte alkohola distilatatzeko erabiltzen ziren alantziketan ikusi di-

tugu anis garauak irakiten, eta aldameneko gelan ekoizpen prozesuari amaiera emanez Europako puntako teknologiaz baliaturik botilatze prozesua burutzen. Lantegiak orain dela gutxi egin du 500 milioitako inbertsioa ekoizpen prozesu ia guztia eta administrazioa automatizatzeko. Gaur egun 50 lagunek egiten dute lan Zizurkilgo lantegian. Honezaz gain enpresak Chinchonen dauka beste lantegi bat eta Madrilan salmenta bulegoak.

Antzinako eran distilatuz lortzen omen du aniseteak zapore berezia, bi aldiz distilatuz eta esentziarik puruena lortuz hain zuzen ere, garauak alantziketan distilatuz, hainbat landareen esentziak lortuz eta azkenik zitriko batzuk, azukrea eta alkohola gehituz. Anisete garauak Malagakoak dira “hantxe daude munduko onenak” dio Aparicio eta “alkohola erremolatxatik ateratakoa da”. Gainerako likoreei dagokienez produktua guztiak lortzeko jatorrizko herrietara jotzen dutela azpimarratu digute, hortxe omen da euren sekretua. kafea Kolon-biatik ekartzen dute, ananak Haititik... eta abar. “prozesua garestia da, baina azken emaitzan ezberdintasuna nabaria da” dio.

Historia

Behin Marie Brizard izena zuen Bordeleko erizain batek bidaiari atzeritar bat sendatu omen zuen bidean. Sendatu ondoren “gaitz guztiak sendatzen dituen elixirrararen errezeta” eman omen zion -Vicentek berak egunean kopatxo bat edatea aholkatu digu. Era honetan ekin zion Marie Brizard gazte kementsuak enpresa bote-



Anis garauak distilatatzeko alantzikak

retsua bihurtuko zen ekimenari. Orain lehen bezala familia arteko enpresa izaten jarraitzen du, nazioartean ospea lortu duen enpresa handia, hala ere. Gaur egun zortzigarren belaunaldiaren eskuetan dago Marie Brizard etxea.

1904ean igaro zuen enpresak muga eta Pasaian ezarri zen, bertatik inportazioa eta komertzializazio lanak egiten zituzten. 1927an egin zuten bertan alantzika eta hasi ziren anisetea ekoizten, botilatzen eta komertzializatzen. Pasaiako lantegia ordea, txiki geratu zitzaizen eta 1968. urtean Zizurkilera etorri ziren. Gaur egun, eta dauzkaten medioen arabera, ekoizten dutenaren bikoitza ere ekoizteko gaitasuna dauka Zizurkilgo lantegiak.

Zer esan dena hankaz gora dagoenean

AIURRIkoek artikulu bat idaztea proposatu zidatenean ea zer gairi buruz aritzea nahi zuten galdetu nien, baina alferrik. Hasierako zalantza hura ez nuela gainditzen eta, gaia aukeratzerakoan sortzen diren zalantzak zergatik sortzen ote diren galdetu nion neure buruari.

Egunkariak aztertuz gero, argi dago azkenaldi honetan gai berri ugari sortu direla: zenbait kasutan gai zaharrak ikuspegi berri batez aztertzeko aukera izan dugu, Estatu indarkeriaren inguruan gertatu den bezela. Bestalde, arazo zaharrei ohizkoak ez diren irtenbideak eman zaizkie edo ematen saiatu dira. Langabeziaren inguruan zebaitetan ere gaiak erabat berriak izan dira. Mario Conde bezala gizarte honen eredu omen zirenak espetxeratzen hasi dira orain arte euskal militanteen aurkako lanarengatik ezagunak genituen epai-leak.

Bada beste gai bat, goian aipatutako horiekin guztiekin lotura duena, aztertzeko modukoa. Abuztu bukaeran Pepe Rei kazetaria atxilotu zutenean denori etorri zitzaigun gauza bera burura: badira gure herrian aipatzerik ez dauden gaiak, eta bakarren batek horrelako guzuzaren bat ikertzeko adina ausardia izaten badu, badaki Carabanchelen bukatzeko arriskua duela. Beraz,...

Halere, adierazpen askatasunak badu oraindik defendatuko duenik, eta ez Euskal Herrian bakarrik. Komunikabe ezberdinetako kazetariak, gero eta gehiago, elkarrekin lanean hasi ziren. Beraiek antolatutako ekitaldiek ez zuten izan oihartzun handirik telebista kateetan, boikot hitza askotan aipatu zen, arazoak nonahi sortzen ziren... Baina helburuaren garrantziaz jabetuta edo, lanean jarraitu zuten.

Atutxak Loiu-ko gertakarien inguruko bere azken bideo produkzioa aurkezteko antolatutako ekitaldian Martiarena jaunak hitza hartu bezain laster Peperen kontrako beste eraso bat jaurtitzen zuten bitartean, Madrigo epaileek Egin egunkariko kazetaria kaleratzea erabaki zuten. Aho zabalik geratu ginen, ez baitzen hori ordura arte ezagututako jarrera.

Geroztik gauza harrigarri asko gertatu da, bai Euskal Herrian, preso-en sakabanaketaren aurkako jarrera berrien kasua, baina hemen-dik kanpo, Espainiako telebista saioetan orain urte entzuterik ez zegoen gauzak entzuten hasteko aukera izan baitugu.

Irakurleak pentsa dezake loturarik ez duela adierazpen askatasunak goian aipaturtako gai horiekin, kazetari bat kaleratzeak ezin dezakeela hainbestearinoko garrantzirik izan, askoz ere inportanteagoa dela gasolinaren prezioak berriro gora egin izana, Iriartek Errealaren norabidea aldatzea edo Gasteizko Gobernuaren osaketa.


Beharbada, horrela izango da, baina ez dut uste kaltegarria denik adierazpen askatasuna nola dagoen, ze arazo motari egin behar dion aurre, zein mugak dituen eta beraiek nola gainditzen dituen azter-tzea. Ez da aukerarik faltako.

Xofor Oria.
EGINEko kazetaria



“ERLOJU HANDIA” KENETH FEARING

Itzultzailea: **Lurdes Argiñano**
IGELA



“Erloju Handia” eleberriko protagonistak, hilketa baten lekuko izaki, aldi berean ikerketa antolatzen eta desbideratzen ibili behar du, hau bukaeraraino eramateak heriotza baitakarkio. Fereing estatubatuarra poeta eta eleberrigile zen batez ere. Idazleak bere lanean noiz edo noiz soilik jo zuen jenero beltzera. Narrazioa zenbait pertsonaien ikuspegitik kontatuta dago. Baliabide horrek irakurlearen irrika areagotzen du, zalantzaren erritmoa pausatuz.

“EZ GARA GALDU” BALERDI BALERDI

GOR



BALERDI
BALERDI

Hamalau abestik osatzen dute Lorentzo Records estudioetan grabatutako diskoa. Abesti guztiak A. Murok konposatu ditu. Pello Lizarralde ere egin ditu bost abestiren hitzak eta hainbat musikari gonbidatu dituzte.

Maitasun edabeak

Perun ugariak dira maitasuna lortzeko edabeak eta kojuroak

Beharbada, probatu egin beharko litzateke eraginik ba ote duten jakiteko. Dena den, Perun maite den pertsonaren bihotza konkistatzeko maitasun edabeak egiteak edota kojuroak eskatzeak arrakasta izaten jarraitzen dute. Maitaturiko duten gizonak erakartzeko metodoa gehien erabiltzen dutenak emakumeak ote diren jakitea da gure zalantza bakarra. Logikoa da pentsatzea, bestalde, maitasun minak emakume nahiz gizonengan berdin eragiten dutela.

Limako kaleak betetzen dituzten milaka saleroslearen artean, kafetxo hartzen duenak bezain lasai, maitasun arazoak konpontzen dituzten petrikilo, belagile eta aholkulariak daude.

Merkatu pertsiar horretan bihotzik hotzena maitale antsiatsurengana eramanez dezaketen era guztietako produktuak daude, edota antsiabetasuna pasio sutua bihur dezaketenak. Maitasun edabeen ohitura hau antzinakoa da, izan ere maitasun eta bihotz asegabeak mundua bezain zaharrak dira.

Kaleko espaloian bertan harrera egiten duten aditu hauen aholkuak, orokorrean, zori txarra soinetik ateratzeko bainu bat gomendatuz hasten dira. Bainua berezia izan ohi da ordea: hogeita bat lorez, arrosa edo geranioz lurrindutako bainua izan behar du, gainera loreek zazpi horiak izan behar dute, zazpi zuriak, eta beste zazpiak arrosak. Guztien petaloak hiru ur litrotan irekin behar dira, eta berari "ruda" izeneko landarearen bi abartxo gehitu behar zaizkio, bata arra, emea bestea.

Urari ur bedeinkatu pixka bat, beste ur lurrindu pixka bat, eta gurutze forman ebakitako bost limoi gaineratu behar zaizkio. Hiru egunez ur

horretan bainatu beharra dago, maitearen izena pasioz esan bitartean. Bainu horrek ez du zori txarra bakarrik uxatzen, bizi jarioak ere suspertzen ditu.

Sainduen laguntza ere bilatu beharra dago, San Antonio eta San Jeronimorena bereziki. Sekretupean gordetako formulak dituzten lurrinak ere hutsik egiten ez duten erakabideak dira, bost dolar (650 pezeta inguru) balio dute fraskotxoek.

Tabakoaren aurka Perun dagoen kanpainari muzin eginez, maite den pertsona erakartzeko beste metodo bat astearte eta ostiraletan zazpi zigarro beltz erretzea da maitearen pertsona pasioz errepikatu bitartean.

Borondateak lotu

Edabe eta kojuro saltzaileen esanetan emakume eta maitale atzipe-tuak dira ohizko bezeroak. Borondatea lotzen duten edabeak ere badaude. Erabili aurretik eragin egin behar da fraskotxoak, eta derrigorrezkoa da, jai, bilera eta igogailuetan jartzea. Eragina izugarria da; bederatzi aldiz biderkatzen omen du erakarmen sexuala.

egin Urtarrilak 12

Post-menopausia

"Etxekoandre italiar batek 62 urtekin, menopausia aurreratua izan arren, ekarri zuen ume bat mundura Vicenza-ko ospitalean, Italiako iparraldean. Emakumeak 36 urte zeramatzen ezkondu 58 urteko merkataritza batekin. Emakumeak obulu bat jaso zuen emakume gazte ezezagun batengandik, eta bere senarraren baziaz ernalditu zuen in vitro, eta ondoren umontzian jarri zioten" EL PAIS. 1994ko Urria.

Teknologia berriei esker, gaur arte ezinezkoa zen zenbait aukera errealitate bihurtzen ari da zenbait emakumerentzat. Menopausia ondorengo haurdunaldiaz ari gara. Berria Italiatik zetorkigun orain dela gutxi, eta aldeko eta kontrako iritziak atera dira han eta hemen. Batzuen ustez, emakumeen askatasunaren aldeko apostua da: beste batzuen ustez, aldiz, gai honen atzean emakume antzuen eta nahita haurrik izan nahi ez duten emakumeen kontrako estigma dago. Hona hemen jarrera baten eta bestearen aldeko argudioak:

"Menopausiaren ondoren haurdunaldiaren atzean, nire ustez, arazo psikologiko sakon bat dago: gure gizarteak, oraindik ere, ez du ondo ikusten umerik ez duen emakumea".

"Era horretako debekuak emakumeen gutxiagotasuna azpimarratzen du: emakumeek ezin dute erabaki gizonezkoek, inolako oztoporik gabe, erabakitzen duten arlo batean".

EMAKUNDE Abendua 94

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

KIROLAK
EDURNE

KALETXIKI, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN

MIRARI
ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2
☎ 590162

ANDOAIN

Joxe Ramon

Taberna

PINTXO EDERRAK !!

KALE NAGUSIA, 16 - ANDOAIN

Hots, hots!

JAIOTZAK



ANDOAIN

- Javier Baltasar Marchueta. Abenduak 16.
- Paula Dos Santos Meireles. Abenduak 22.
- Maialen Díez Rezola. Urtarrilak 4.
- Iñaki Egües Muñagorri. Urtarrilak 10.
- Irati Beraza Urreiziti. Urtarrilak 9.

ASTEASU

- Gaizka Iruretagoiena Iraola. Urtarrilak 14.

BILLABONA

- Jon Euskiza Irazu. Abenduak 26.
- Eider Jauregi Urdanpilleta. Abenduak 31.
- Julen Jaka Tolosa. Urtarrilak 9.

EZKONTZAK



ANDOAIN

- Eduardo Portillos eta Maria Jesus Barbo. Urtarrilak 5.
- Abdelghani Yerrou eta Yolanda Pirón. Urtarrilak 7.

BILLABONA

- Jesus Karmelo Garai eta Maria Ines Rodríguez. Urtarrilak 7.

ANDOAIN

- † Juana Muraza Alustiza. Urtarrilak 9.

ASTEASU

- † Maria Zufiria Agirre. Abenduak 12.

BILLABONA

- † Sofia Caballero Caballero. Abenduak 17.
- † Francisca Oiartzabal Zuloaga. Abenduak 23.

ZIZURKIL

- † Emilia Bengoetxea Akarregi. Urtarrilak 9.


HILETA OHARRAK

Gure aldizkariaren bitartez eskerroneko obarrik argitara eman nahi izanez gero, bemen dituzue aukeran bi tamainako obarrak.

HANDIA: (40mm x 120mm) - 10.000pta.

TXIKIA: (40mm x 56mm) - 5.000pta.

SUKALDE TXOKOAN



Mari Kruz Ansa

Lartin jatetxea

Zizurkil

ARRAIN PASTELA

Osagaiak:

- 250 gramo arrain
- 250 gramo tomate
- 250 gramo esnegain
- 8 arrautza
- Gatza eta piperrautsa
- Gurina
- Ogi birrinak

- 1- Arrautzak katiluan jarri eta irabiatu.
- 2- Ondoren tomatea, esnegaina eta alde zuriak egositako arraina gehitu. Ura, gatza eta piperrautsa bota.
- 3- Molde karratu bat gurinez eta ogi birrinak igurtzi eta katiluko osagai guztiak bertara bota.
- 4- Maribainuan jarri labe plaka batean 25-30 minutuz 200 gradutara.
- 5- Pastela hoztu eta gero atera behar da moldetik.

LOATZO ASEGURUAK - ASESORIA



ZURE ETORKIZUNA BIZI ASEGURUA

JOXERRA GARMENDIA MUJICA
IBON GARMENDIA UGARTE

Antxin kalea, 3 behe - ☎ 69 39 13 - Faxe 69 38 43 BILLABONA

EUSKALDUNA



Edaritegia

Bilar-jokorako aretorik
apropesena!!

Txermin kalea, 4 - ☎ 69 36 47 BILLABONA

SALEROSKETAK

ANDOAIN

Idazmakina elektriko Oliveti ET pertsonal 55a salgai. Berria dago ia. 15.000 pezetan salgai. ☎ 59 02 59

BILLABONA

Cyclostatik BH MI-TECHa salgai. Vibrowcycle, abdominal bibradore-duna da txirringa. Egoera onean dago, eta prezio are hobeagoa du. ☎ 69 30 48. Juan Luis.

ZIZURKIL

Musika bateria salgai prezio onean. ☎ 65 37 58. 13.00-19.00 deitu.

ALOKAIRUAK

ANDOAIN

Andoainen pisu bat hartuko genuke alokairuan. ☎ 65 99 94. Deitu 9.00- 13.00.

ZIZURKIL

Pisu bat daukat alokatzeko moduan. ☎ 69 17 30

IKASKETAK

ANDOAIN

Enpresa zientzietan lizentziatuak klase partikularrak emango lituzke etxean: matematika OHO,

LH, BBB ETA UBI maila. Baita kontabilitate klaseak ere. ☎ 59 14 54

Frantses filologoak klase partikularrak emango lituzte hasberrientzat, hobetza maila eta elkarriketarako. ☎ 59 22 06

Ingelesean diplomatuak klase partikularrak emango lituzke astean bi aldiz. 5.000 pezeta hileko. ☎ 42 88 55. Gauean deitu. Plazaola 9, behea.

BETERRI: Ezer saldu edo eskaini nahi izango bazenu, ez zalantzarik izan, hauxe duzu zure txokoa. Eman iezaguzu informazio zehatz eta osoa, hartara, interesatua jakinaren gainean izango da. Bestalde, ez ahaztu! Inorekin harremanetan jarri nahi baduzu, hau duzu biderik egokiena.



Zabala

Ordukari Bitxitegia

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI



KALE BERRIA, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49



TXERRIKIEN
BANATZAILE
ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA
Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923
ANDOAIN



HOL - ATZ

VACSOL - WITRATAMENDUA EGURRARENTZAT



OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Agaitz auzoa, z/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
BILLABONA

Lirauuna

KIROL JANTZIAK

Ama Kandida etorbidea, 6
Posta kutxatila 110 - ☎ 59 44 47
ANDOAIN



-Erreformak oro har
-Neurrira egindako armairuak
Agaraitz auzoa, z/g - ☎ eta Faxe 69 26 75
BILLABONA

Kalean egiten dena ere "politika ofiziala" da

AIURRI aldizkariaren azken zenbakian, Xabier Lasak Bergarak *politika ofizialari* egindako kritika irakurri dut eta irakurketa horren ondorioz, hainbat erantzun aurkitu dut, denak hemen eta orain idatzi ezin direnak. Baina nolabait eta nonbaitetik hasi behar eta Xabierrek oinarrian bi kritika egiten dituela iruditzen zait.

Batetik, badirudi kronista bat, komunikabide, iritzi, ikuspegi, hausnarketa eta abar bateko edo besteko izan, Xabierrentzat sinesgarritasun gehiago edo gutxiagoren jabe dela. Zilegi zaio edonori komunikabide bat edo besteaz fidatzea, ez dira alferrik bat baino gehiago gure artean eta seguruenik, gertakari baten aurrean kronika ezberdinak egingo dituzte, bakoitzak, esperientziarik objektiboenaren aurrean ere (esperientzia guztiak dira objektibo) ezin baitu objektibo mantendu: hain zuzen, gizakiaren ezagutza, berak esperientziaren egiten duen interpretazio edo berreirakuntzan oinarritzen delarik. Gourbrich-ek dioen bezala "*begizko lekukoaren printzipioa*" aplikatuz, edozein kontakizun edo kritika aplikatzerakoan, baloraziozko juizioak egiten ditugu eta prozesu hori ezinbestekoa da gainera. Bada ordea kritikarik "*begi garbi edo inozoen printzipioz*" jokatu nahi duenik baina ikuspegi hori lortu ezin duelako, bere objektibotasuna besteei sinestaraztean utzi nahi du ezarrira. Eta hori da hain zuzen ere Xabierren pretentsioa; horregatik hartzen ditu egoera baten ustezko bi mutur, maratila horrek mutur gehiago dituela onartu nahi gabe edo, okerrago, beste muturrak ezkutatu nahian.

Beraz, edonork hauta dezake, bere pentsakeraren arabera, zein den irakurri nahi duen kronika, egin nahi duen hausnarketa edo onartu nahi duen iritzia; baina hortik, bakoitzaren posturaren errua kronistak duela esatea, astakeria bat besterik ez da. Eta gainera, hain

ironikoki tratatzen duen komunikabide eta kronista, Gipuzkoan eta Andoainen arrakastatsua dira hain zuzen, herriko kronikarengatik. Beraz, agian Xabierrek esan nahi du hori erosi eta irakurtzen duten guztiak ere kutsatuta eta pozoinduta daudela?

Bestetik "*bizkuntza berri bat ezarri zaigu*" la dio Xabier Lasak. Esaldi horrek baditu aztertu beharreko termino bat baino gehiago, erabili duen aditzetik hasita: *ezarri* esan beharrean, agian, *erabili* esan behar luke Xabierrek, ezarpena bortxakeria baita eta bortxaketaz ari bagara -lehen esandakoaren ildotik- bakoitzak besteari eragozten dio ezarpen edo bortxakeriarik, norberarekin onartu nahi gabe. Politika munduan erabiltzen diren hizkuntza edo diskurtsoak ez dira bi eratakoak, askoz ere gehiagokoak baizik. Eta kasu honetan ere, bakoitzak aukeratzen du berari egokien lihoakiokeena; eta bakoitzak, bere egiten duen (nahiz eta askotan berebera ez izan) diskurtsoa azaldu eta justifikatzen saiatu behar du. Hemen ezin da "nik hau edo bestea onartzen dut beste guztiak arrazoirik ez dutelako" esan eta horrekin, diskurtso ofizialetik kanpo geratu NAHI IZAN. Xabier Lasak ere hobe luke berea zertan oinarritzen den azalduko balu, horrela bakarrik jakingo baikenuke bere arrazoa zertan den eta ez (berak erakutsi nahi digun bezala) besteena non ez dagoen. Horrela jakingo genuke ere, diskurtso guztiak, DENAK, direla ofizialak eta denek suposatzen dutela besteengana heldu eta besteengandik gailentzeko joera. Hau ordea ederki disimulatu nahi izaten du zenbait besteena handizale eta norbera hain hankapeko jarri nahian.

Puntu zehatz hau askotan entzun behar izan dut eta ez dezala inork pentsa (ez eta alderdietatik kanpo geratu uste dutenek ere) politika guztiak

(bai Udal barruan eta bai kalean egiten diren politikak) ofizial ez direnik eta alderdi edo koalizio guztiak politikakoak ez direnik. Zeren eta hemen "ofizial" hitza, letxetar handiarekin erabiltzen da, herriarengandik hurbil ez dagoenaren azpiesanarekin. Maiz asko eta alaiegi uzten dugu gure gogoko den alderdi edo proiektua *besteek* dituzten kontraesan eta gabeziengandik aparte. *Beste* horiek dira ofizial eta nirea berriz, "herria". Askok uste du bere militantzia ez dela alderdi politiko batena, herriarena baizik. Eta honela kontrajartzen da "herriaren" interesa eta politika *ofiziala*. Itxukeria handiagorik!

Xabierrek kontatzen dituen bi Plenoetan joera ezberdinak egon ziren eta bakoitzak uste ditu batzuk besteak baino fidagarriago. Hori ezinbestekoa da zeren eta inork ezin dezake esan gauza horien aurrean inolako jantzirik gabe agertzen denik, ez eta Xabier Lasak berak ere. Baina gertakizun horietan ezin da ukatu batzuek bere *politika ofiziala* Udalean egin zutela eta besteek kalean eginda ere bazeukatela Udalera joan aurretik. Eta hain zuzen, *politika ofizial borren bizkuntza hori* ere inposatu nahi zaigu.

Xabierrek **AIURRI**ren bidez agertu duen iritzia, beste komunikabe bateko kronistak agertutako gertakizunen interpretazioa kritikatzeko du. Badirudi berari interpretatzea (gertatutakoak ezezik kronistaren "azpijokoak" zeintzuk ote diren ere) zilegi zaiola eta kronistari ez. Badirudi, gertakizunak interpretatu eta ezagutzeko denok ditugun betaurrekoak kendu eta kritikari puroen linboan ezarri, *benetan gertatu zena* esan nahi digula lurbarro. Eta horrek badu euskaraz erantzunik: **Zozozkoak beleari ipurbeltz!**

Xabier Huizi Belamendia

Gaztetxeari buruzko plenoa Zizurkilen

Azaroak 28an Zizurkilgo Kostata Gazte Asanbladako kideak plenoa joan ginen Gaztetxe baten eske, beste zenbait arrazoiren artean, Kultur Etxeak gure ekintzak mugatzen dituelako. Zinegotziek aipaturiko egunean igo ginen, baina sarrera eragotzia izan zitzaigun. Beste gai batean murgildurik omen zeuden. Gure ideiak agertu nahi genituela azaltzen saiatu ginen, eta azkenean sarrera baimendu zuten.

Gure eskaera luzatu ondoren, zenbait zinegotzi mututu egin ziren. Beste batzuk, aurrez aurre eduki beharreko zenbait informaziori buruz galdetzen hasi zitzaizkigun: subentzioak, zer ekintza bururu ditugun. Ordubetik ondoren herriko lokalen estudio bat egitekotan gelditu ziren.

Bilera bukatzean zegoenean EAko zinegotziak galdera pertsonal bat luzatu zigun. Herriko jaietan batzokiko ikurriña lapurtu omen zuten. Gertaerari buruzko gure iritzia jakin nahi zuen. Gazteok sutan jarri gintuen galdera horrek. Jakin beza, (eta hau izan da idatzia kaleratzeko zioa) batzar hartan, galdera hark ez zuela tokirik.

Kostata Zizurkilgo Gazte Asanblada

Ngeltsaritza

M. USABIAGA

Leku eder Etxea - Elbarrena Auzoa
☎ 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (GIPUZKOA)

Familia plangintza naturala



Naturarekiko errespetoaren printzipioa gero eta indar handiagoa ari da hartzen gizarte modernoaren kontzientzian. Gizakia gero eta kontzientzagoa da lurra eskaintzen dizkigun errekurtsoen erabilerak arrazionala izan behar duela hurrengo belaunaldiek inongo kalterik gabe jaso ditzaten. Gaur egun, inoiz ez bezala, benetako tragediatzat hartzen dira kutsadura, desoihanczapena, animalia espezien desagertzea, neurritz gaineko ustiapenaren ondorioz lurraren pobretzea eta beste arazo batzuk.

Naturarekiko errespetu sentimentu hori lurraren jabeak ez garelako ulertu ondoren sortu da. Alegia, gu iritsi aurretik hortxe zeuden ondasun batzuen gestoreak baino ez garelako ulertu ondoren, eta halaber, gu joan ondoren ere hor jarraitu behar dutela. Azken finean onartu dugu naturaren oreka miresgarria existitzen dela, era arrazionalan erabili bai, baina hautsi ezin ditzakegun legeak arautzen duten oreka, hain zuzen ere.

Familia plangintza naturalaren metodoak filosofia horretan daude oinarrituta, hain juxtu. Gizakiaren birsorkuntza gaitasuna, era berean, oreka horren menpe dago, aipatu dugun bezala era arrazionalan erabili bai, baina hautsi behar ez ditugun legeak arautzen duten oreka horren menpe.

Emakume baten hileroko zikloak egun ugalkor gutxi batzuk bakarrik dauzka, bost edo sei inguru. Horietan sortzea posible da, gainerako egunak ez dira emankorrak. Beraz, egunak emankorrak diren ala ez jakiteko gai baldin bada emakumea, ezagutza hori erabil dezake sortzea ekiditeko edo lortzeko. Horrela bada, familia plangintzako metodo natural guztiak egun ugalkor eta ez ugalkor horien zehaztapenean oinarritzen dira.

Metodoak

Lehenengo metodo naturalak Oginok (1924) eta Knaus-ek (1929) ikertu zituzten. Beraiek asmatu zuten obulazioa hilerokoa izan baino bi aste lehenago izaten zela. Informazio horri emakume bakoitzaren hile-

rokoaren zikloa gehituz, zehatu zituzten emakumearen egun ez ugalkorrak zeintzuk ziren. Alabaina, emakume gehienek zikloak erregularak ez direnez, metodo hau ez zen oso fidagarria. Zenbait hutsegiteren ondorioz "Oginoren seme-alabak" deituraz izendatu zuten ume bat baino gehiago garai hartan.

Ogino eta Knausen ikerketek geroztik asko aurreratu da metodo naturala dagokienez eta erakunde batzuek eman dituzte ezagutzera, horondate hutsez. Emakumeak aluan zehar isurtzen duen mukiaren azterketan oinarritzen da "Billing metodoa", edozein emakumeak erraz erreparatu ahal izango die mukiaren egoera aldaketei. 60 eta 70eko hamarkadetakoa ikerketek argi eta garbi frogatu zuten aipaturiko mukiak berebiziko garrantzia duela obulaoa ernaltzeko edota ekiditeko garaian.

"Tenperaturaren metodoa" obulazioa gertatu eta berehala, eta ondorengo egunetan gertatzen den tenperaturaren igoeran dago oinarrituta. Azkenik, "metodo sintotermikoa" aipaturiko bi metodotan lortutako informazioa motaz baliatzen da, hala nola sintomen behaketan. Metodo hauek gain botiketari gaur egun badaude behaketa eta analisia hauek guztiak egitea ahalbidetzen duten tresna txikiak.

Euren fidagarritasuna ziurtatzen duten ikerketa ugari egin dira medikuntzan azken urte hauetan. 1981ean eginiko ikerketa baten arabera, "Billings metodoa" egoki erabiliz gero, bere erabilpena eta metodo kimikoak edo ohizko kondoiaren erabilpena alderatuz haurdunaldien kopurua berdintsua edo txikiagoa zela ikusi zuten. Beraz, emaitza praktikoei dagokienez zaharkituta geratu den topiko -interesatua batzuetan- da metodo naturalak fidagarriak ez direla baieztatzen duen iritzia. Baina are gehiago, frogatuta dagoen fidagarritasuna baztertuz, metodo naturalak giza maitasunaren filosofian daude oinarrituta, antisorkuntzaren ikuspegiari kontrajarriz.

Metodo naturalak ez dira antisorgailu naturalak, nahiz eta helburu horrekin ere erabil daitezkeen. Antisorkuntzaren ikuspegiak sexua eta ugalketaren arteko bereizketa egiten jarraitzen du, eta metodo naturalek bien arteko lortura errespetatzen dute. Errespetua da metodo naturalen arrakastaren giltza: errespetua bikotearekiko bere desioei lehentasuna emanez gurei eman ordez, eta naturarekiko errespetua, bere erritmoei lehentasuna emanez, gure erritmoei eman ordez.

Antisorgailuen ordez, metodo naturalak hautatu dituzten bikote gehientsuek euren arteko harremanek hobera egin dutela adierazten dutela frogatu du esperientziak. Metodo naturalak erabiltzeak esan nahi duen abstenentzia egunak onartu beharrak euren harremana aberasten duten beste maitasun komunikabide batzuk bilatzea eragiten dio bikoteari.

Itsas-Berri elkarteak familia plangintzako metodo naturalak erabiltzen erakusteko sortu den lehenengo elkarteak da Gipuzkoan. Antzeko beste elkarte batzuen antzera Itsas-Berri doan ematen du metodo hauen erabilpenari buruzko informazioa eta laguntza. Metodo naturala erabiltzen ikastea oinetakoetako korapiloa egiten ikastea bezain gauza erraza dela esaten dute: hasieran zaila ematen du, baina behin ikasiz gero, oso erraza da. Gai honi buruz xehetasun handiz informazio osoa ematen duten liburuak ere badaude, baina, hala ere, egokiagoa da beti ere pertsona adituena laguntza jasotzea.

Itsas-Berri. Iparragirre kalea 16, 1. 6. bulegoa. 20001 Donostia. ☎ 27 81 93.

Ana Rosa Munila.

Itsas-Berri, Familia Plangintza Naturala elkartearen lehendakaria.

TXISTE LEHIAKETA

Amaia Lizaso andoaindarra izan da txiste lehiaketako lehen saria jaso duena. 13 urte dauzka Amaiak eta Aita Larramendi ikastolan ari da ikasketak egiten. Berez, ez omen da oso-oso txistezalea, baina aukera daukanean lagun artean badakigu kontatzen dituela.

Honako hau da lehenengo saria irabazi duen txistea:

Benetan xuburra

Gizon bat hain zen xuburra, hain zen xuburra, ezen hiltzorian bere ohean zegoela, zera galdetu zuen:

- Emazte, hemen al zaude...?
- Bai, senar, nola ez naiz ba egongo!
- Seme, zu ere hemen al zaude...?
- Bai aita, ni ere hemen nago.
- Alaba, zu ere hemen, nire ondoan al zaude?
- Noski baietz.

Eta halako baten aitzak baserre oihu egiten du:

- Orduan, zein demotrerentzat daukazue sukaldeko argia piztuta?!

Bigarren saria **asteasuar batek** irabazi du; **Joxean Azkuek**. Honek ere ez omen dauka txistek kontatzeko joera handirik, eta AIURRIIn idaztera animatu bazen, ariketa gisa egin zuen, alegia euskara idazteko saiakera egin nahian. Patxinen saria jaso zuenean, artean afaltzera noiz eta norekin joango ote zen erabaki gabe zeukan. Dena den, on egin deizuela!

Hona hemen AIURRIk saritu duen Joxeanen txistea:

Felix eta Joxek topo egiten dute kalean eta borrela esaten omen dio Felixek bere lagunari:

- Atzo emaztea zeharo baserretu zitzaidan txoro kontu batzuegatik eta erabat historika joan zitzaidan.

- Hi, Felix, hori nola duk, historika? Ez zen, ba, isterika joango?

- Ez, ez, historika joan zitzaidan, zeren eta ezkondu ginen egunetik gertatu diren baserraldi guztiak gogorarazi zizkidan.

38



Amaiak gustora asko jaso zuen Diksmen-a "Aitzbeltz"eko Josetxoren eskutik



Joxean eta "Patxine"ko Patxi

AIURRI ALDIZKARIAK BI BERRIEMALE BEHAR DITU

Aiurri aldizkariak bi berriemale behar ditu Asteasu/Larraul eta Billabona/Amasa/Zizurkilen lankide beka-saridun gisa aritzeko aldizkariaren ardurapean.

Ezaugarriak:

- Hileroko beka-saria 25.000 pezetakoa izango da.
- Hautagaiek Kazetaritza lizentziaturako ikasle izan beharko dute.
- Eskerak aurkezteko epea: otsailaren 13an amaituko da.
- Informazio gehiago: aldizkariaren erredakzioan. Telefonoa: 30 07 32.

IKASTAROAK

ASTEASU

Otsailean: "Bertsotan nola egin?" bertsolaritzari buruzko ikastaroa. Asteazkenero arratsaldeko zazprietatik bederatzia arte Kultur Etxean. Irakaslea: **Mikel Mendizabal**. Galdera: Mila Iztueta eta Mikel Maiz. Doan izango da. Izenematea: Asteasuko Kultur Etxean. Antolatzailea: Larramendi Kultur Bazkuna. Asteasuko Udalerri Biltzarra.

ANTZERKIA

ANDOAIN

Otsailak 11: Capilla Peñaflorida taldeak **"La serva padrone"** izeneko antzezlan eskainiko du La Salle ikastetxeko aretoan.

Otsailak 12: "Itsasminex" izeneko antzezlan eskainiko du **txotxon-gilo taldeak**. La Salleko aretoan izango da saioa arratsaldeko 5.30etan.

LEHIAKETAK

ANDOAIN

Ihauteritako maskara lehiaketa: Edozein materialaz egin daitezke maskarak, beti ere aurpegira egokituz. Gaia librea da. Antifazek, nahitaez, aurpe-

gia kopeterditik sudur azpiraino estaltzen dutenak izan beharko dute. Lanak Urigain Kultur Etxean entregatu beharko dira erakusketan jar daitezzen. Otsailak 20ean amaituko da lanak entregatzeko epea. Ondoren lehiaketan parte hartutako maskaren erakusketa egingo da. Antolatzailea: Tailer kreatiboa.

ANDOAIN

Otsailak 11: Buruntzan **zuhaitz landaketa**. 500 haritz landatuko dituzte. Irteera goizeko 10etan izango da Goiko Plazatik. Antolatzaileak: Andoaingo Talde Ekologista.

BESTE

ZIZURKIL

Otsailak 8: Virginia Imaz ipuin kontalaria izango da Kultur Etxean. Saioa 3-4-5 urteko eskola haurrei eskainita egongo da.

Otsailak 24: Ihauteriak: Ohizkoa den bezala ikastetxe guztietako haurrek goizean **mozorrotuta koplak kantatzen ibiliko dira kalez kale**. Ondoren enparantzan egingo da **dantza saioa** eta bukatzean, **merienda** eskainiko zaie guztiei.

BILLABONA

Otsailak 2: **Kanta saioa** Roberto Belen argentinarrek eskainita. Gurea zinema antzokian 8etan

ZINEMA

GUREA ZINEMA BILLABONA

"Peligro inminente".
"Entrevista con el vampiro".

"Los peores años de nuestra vida".
"Policía en el tiempo".

Haurrentzako zinema:

"Todo lo que quiero para Navidad".
"Los Supersónicos".
"Pulgarcita".
"Las aventuras de Bastian".



**ELEKTRATRESNAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK**



Arteta kalea, 1 eta 3
☎ 59 12 26 - Faxa 30 03 45
ANDOAIN

PATXINE JATETXEA



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL
SUKALDARITZA ETA ETXEKO POSTREAK
Errementari, 1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU

OTSAI

Etxebizitzen salerosketa

Kale berria, 58 ☎ 69 08 94 BILLABONA

SAHATSA

BELARDENDA ETA DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Termin kalea, 16 - ☎ 69 28 83 - BILLABONA

Andoaingo baserriak

Sorabilla-Belkoain

Bailara honetan ezagutu ditut nik hogeita hamazazpi baserri bere sukalde eta ikuluarekin: Matxine, Balestain (2 etxebizitza), Lakatxe, Arbitza, Iulus, Errekalde, Seroretxe, Mendiola (Tuduri), Gaztañegi, Erramus, Etxeberri, Kordoba, Errota, Goiko Etxeberri, San Migel, Erramuta, Borda, Erdoista, Pagarte, Garate, Azpikola, Murkaio, Intsusain (bi etxebizitza), Olabide, Borda berri (bi etxebizitza), Koskagain, Mendiluze, Bazkardo (bi etxebizitza), Allurralde (hiru etxebizitza), Allurralde txiki.

Bailara hau Andoaini batu zitzaioala 120 urte izango dira. Aspalditik Aiztondo edo Asteasu inguruko herriekin batuta egon zen. Orain dela 80ren bat urte arte "Azelaingo zubia" bakarrik zen Andoainekin batzen zuena. "Azelain" izen handikoa etxea zen eta baita bere zubia ospetsua ere. Horren berri beste batean emango dugu.

Kanta herrikoa:»

"Eskutikan eskura- labaindik arria- sorginak egiña da- Azelaingo zubia".

Joxe Eizmendi

B
E
R
T
S
O
T
A
N




Itausterietan baditugu borrenbeste jazki berri, superman edo beste zerbaitez denak daude zoragarri. Asto gainean edo kotxean denak dabiltz herriz berri, jendea joaten denerako dena dago oso zerri.

Egunero egunero daude mozorrotu izugarri, taberna barru eta kanpoan denak dabilta dantzari. Baina den dena amaitutzean dena da oso mingarri, burriengo urtea dator eta jarri alai eta pozgarri.

Aitziber Otaegi

Asteasu



URBIETA ANAIAK



KALITATEZKO SU EGURRA



- Neurrira moztuta eta urte osoan
- Haritza eta pagoa
- Etxerainoko zerbitzua

Larraulgo plaza, etxeberri etxea, 1 - ☎ 69 35 76 - LARRAUL

ALFARO

TABERNA - JATETXEA

ETXEBERRIETA. ANDOAIN ☎ 59 40 27



EGUNEROKO MENUA 850pta

BAITA ZURE KUTIXIKO BAZKARI EDO AFARIA

AIURRI

BETERRIKO
ALDIZKARIA



M. LARRAMENDI

*Kultur bazkunak
Argitaratzen du*

UDALEN BABES ETA LAGUNTZAREKIN

ANDOAIN




BILLABONA



ZIZURKIL



ASTEASU



LARRAUL



ADUNA

